

A photograph of a city street. On the left, a man in a light green t-shirt and dark pants walks away from the camera. On the right, a person in a dark jacket and cap sits on a black motorized scooter, also moving away. The street has a red curb on the left and white dashed lines in the center. To the right of the road, several cars are parked along the curb. In the background, there are green trees on the left and multi-story apartment buildings on the right. The sky is clear and blue.

Aretxabaletako IUPI

Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala
2026-2029

Memoria

Aretxabaletako IUPI

Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala 2026-2029

Memoria

Data
2025eko Iraila



Sustatzailea
Aretxabaletako Udala



LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde
Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren**
%85eko dirulaguntza jaso du



Aholkularitza teknikoa eta idazketa
Projekta Urbes



Irugarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

- I. IUPI: Memoria.**
- II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerrri irugarria.
- III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irugarria.
- IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
- V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.




Aurkibidea

1. Sarrera.....	4
1.1. Informazio orokorra.....	4
1.1.1. Udalerria eta irugarritasuna.....	4
1.1.2. Gizartea.....	7
1.1.3. Udala.....	10
1.2. Desgaitasuna eta mendekotasuna.....	12
1.2.1. Gizartearen zahartzea.....	14
1.2.2. Desgaitasuna eta mendekotasuna genero-ikuspegitik.....	17
1.3. IUPIaren idazketa.....	20
1.3.1. Aurreko Irugarritasun Planak.....	20
1.3.2. Irugarritasun Unibertsalerako Plan Integrala.....	23
1.3.3. Metodologia.....	25
1.3.4. Idazketa-prozesuaren memoria.....	33
1.4. IUPIaren edukiak eta antolaketa.....	35
2. Proposamen estrategikoa.....	36
2.1. Ikuspegia eta xedea.....	36
2.2. Printzipio estrategikoak eta zeharkako gaiak.....	36
2.2.1. Printzipio estrategikoak.....	36
2.2.2. Zeharkako gaiak.....	40
2.2.3. Intersektionalitatea.....	42
2.3. Printzipio operatiboak.....	44
2.4. Jarduketa-eremuak.....	46
2.5. Ardatzak eta jarduketa-esparruak.....	47
3. Irismena eta diagnostikoa.....	49
3.1. Irismena, denboran.....	49
3.2. Diagnostikoaren eta jarduketaren irismena, esparruen arabera.....	49
4. Jarduketa-Plana.....	62
4.1. Ardatzak, helburuak eta jarduketak.....	62
4.1.1. Udalerrir irugarria.....	63
4.1.2. Udal irugarria.....	65
4.2. Lehenespen-irizpideak.....	67
4.3. Jarduketaren balorazio ekonomikoa.....	67
4.4. Etapa-plana.....	68
4.4.1. Baldintzatutako jarduketak.....	68
4.5. Jarduketa-fitxak.....	68
5. Kudeaketa-plana.....	70
5.1. Gobernantza.....	70
5.2. Jarraipena eta ebaluazioa.....	71
5.2.1. Aginte-koadroa.....	71
5.2.1. Adierazleak.....	72
5.3. Planaren berrikuspena.....	73
5.4. Komunikazioa eta gardentasuna.....	73

1. Sarrera

1.1. Informazio orokorra

1.1.1. Udalerrria eta irisgarritasuna



Gipuzkoako Debagoiena eskualdean kokatua, Deba ibaiak zeharkatzen du. 26,94km²-ko azalera dauka (inguruan dituenak baino txikiagoa izanik, tamaina ertaina dauka Gipuzkoa mailan), landa-eremuan auzo txiki batzu dituelarik.

Lurzoru-motak	Azalera km ²
Egoitzarako lurzorua	0,41
Jarduera ekonomikoen lurzorua	0,28
Sistema orokorren lurzorua	1,24
Lurzoru ez urbanizagarria	24,99
Guztira	26,94

Biztanleriari dagokionez eskualdeko laugarren postuan badago ere, dentsitatearen arabera bigarrena da Aretxabaleta. Biztanle-dentsitate altuko udalerrietan irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzeak egiten direnean, eraginkorrak izaten dira, jarduketa bakarrean biztanle gehiagori eragiten bait zaio (adib. egoitzarako lurzoruari dagokionez, Aretxabaletako eta Eskoriatzako azalerak berberak dira).

Herrigunea

Herrigunea Deba ibaiaren ibarrean dago kokatua, Eskoriatza eta Arrasate artean bailara zabaltzen den eremuan. Jatorrizko herrigunea eta hurrengo mendeetako biztegien garapena batez ere Deba ibaiaren ekialdeko lurretan egin ondoren, gaur egun mendebaldeko magalean gora ere zabaltzen diren etxebizitza-erakundeak.

Ibaiaren ipar-hego norabide berberarekin, herrigunea zeharkatzen zuten Errege Bideak eta Vasco-Navarro trenbideak. Bata zein bestea gaur egun desagertu dira, baina nabarmena da horien traza kaleetan, herrigunearen antolaketa nagusia baldintzatu baitzuten. Lehenengoa egungo Otalora-Errekabarren-Belorrieta-Nafarroa-Araba kaleei dagokio, eta bigarrena berriz, eskualdea zeharkatzen duen bidegorriari.

Ipar-hego norantzan irisgarritasun zailtasun handirik ez dago beraz (Santutxo +233m-tara dago, eta Etxebarri poligonoko sarbidea +252m-tara), zeharkako ibilbideetan koskak eta maldak handiagoak direlarik, mendebaldeko magalean batez ere (Txarapeako azken blokea +273m-tara dago).


Orografiarekin batera, trafikoak ere baldintzatzen du irisgarritasuna: batetik, industria herrigunearen ondo-ondoan izanik, kamioien joan-etorriek hainbat kaleetako trazadura eta bihurguneen gainean eragiten dutelako; eta bestetik, sarearen diseinuak berak ez duelako laguntzen ez trafikoa ez eta bere abiadura mugatzen laguntzen.

Auzoak

Landa eremuan 9 auzo ditu Aretxabaletak: Aozaratza, Apotzaga-Etxebarri, Areantza, Arkarazo, Galartza, Goroeta, Isurieta, Larrino eta Oro. Baserri kopuruari (10 eta 23 artean) eta biztanleriari dagokionez (17 eta 46 artean), tamaina txikikoak direla esan daiteke.

IUPIrako azterketa orokorra

Mapa digital baten gainean jaso da IUPIaren abiapuntua izan den lehen azterketa, alderdi aipagarrienak geruzatan antolatu direlarik: irisgarritasunerako helmuga/oztopoak, oinezko ibilbideak, ekipamenduak, espazio publikoak, maldak, kota aldaketak, zeharbidetxeak...



IUPI honi dagokion diagnostiko orokorra jasotzen duen azterketa-maparen pantaila-irudia.

Esteka: www.labur.eus/IUPI-Aretxabaleta-AM

1.1.2. Gizartea

Aretxabaletako gizartearen egungo egiturak EAEko udalerrri gehienen ezaugarri nagusiak erakusten ditu: biztanleria egonkorra, zahartze progresiboa eta familia edo elkarbizitza-unitate gero eta txikiagoak. Udalerrriak 7.200 biztanle inguru ditu, eta azken urteetan populazioaren hazkundera moderatua izan da, hazkunde begetatibo negatiboa kanpo- migrazioarekin konpentsatzen delarik. 2024ko EUSTATen datuen arabera:

- Bizirik jaioak: **37**.
- Heriotzak: **74**.
- Migrazio saldoa: **+74** (kanpoko +79, barnekoa -5).

Adin nagusiko biztanle kopuruaren eta bizi-itxaropenaren igoera progresiboa sekulako arrakasta sozial eta kolektiboa da, baina aldi berean erroka garrantzitsua da hainbat ikuspegitik, irisgarritasun unibertsalarena besteak beste.

Hala, biztanleriaren piramideak erakusten du belaunaldi gazteen proportzioa pixkanaka murrizten ari dela eta 65 urtetik gorako pertsonen kopurua gora egiten ari dela, eskualde-mailako joerarekin bat etorritik. Nabarmendu behar da adin nagusiko biztanle kopuruaren eta bizi-itxaropenaren igoera progresiboa sekulako arrakasta sozial eta kolektiboa dela, baina aldi berean erroka garrantzitsua dela hainbat ikuspegitik: pentsioak edo eta osasun- zein zainketa-sistemak bistaritzen dira gehienetan, baina azpimarratu behar da irisgarritasun unibertsalaren ikuspegitik ere aurre egin beharreko erroka dela.


EAEko estatistikek erakusten dute familien kezkak nagusiki osasunarekin, desgaitasunarekin eta egoera ekonomikoarekin lotuta daudela: desgaitasuna edo mugikortasun-zailtasunak dituzten pertsonen kopuruak gora egin du, eta horrek arreta berezia eskatzen du inguruneen, zerbitzuen eta komunikazioaren irisgarritasunari dagokionez.

Bestalde, gizarte-aldaketek eta bizitza-ereduen bilakaerak isolamendu sozialerako arriskuak areagotu dituzte. Auzo batzuetan, zahartze-indize altuak, bakarrik edo bikote bakarrean bizi diren etxebizitza-unitateen portzentaje handiak eta igogailurik gabeko eraikinen presentzia nabarmenak egoera hori indartzen dute. Horrek erakusten du auzoen arteko desberdintasun espazialak kontuan hartu behar direla, irisgarritasun fisikoa ez ezik, soziala ere bermatzeko. Atal honetan auzoz-azoko azterketa egingo bada ere, hona zenbait datu aipagarri (EUSTAT, 2023):

- Etxebizitzen batez besteko antzinakotasuna: **41,6 urte**.
- Etxebizitzen batez besteko azalera erabilgarria: **87 m²**.
- Igogailua duten etxebizitzak: **2.561/3.316 (%77)**.
- Biztanle-kopuruari dagokionez, 3-5 pertsonako etxebizitzak dira ugariak (**1.172**). Kopuru hori azken hamarkadan gutxi aldatu da; aldiz, asko hazi da pertsona bakarreko (**965**) eta biko (**861**) etxebizitzen kopurua.


Hurrengo orrian udalerriko eta eskualdeko biztanleriaren piramideak jaso dira, adinen eta sexuen arabeko banaketak antzekoak direla ikus daitekeelarik.

Biztanleria (Aretxabaleta, 2024)



Piramidearen oinarria estua da, biztanleria-talde nagusia **40-69** adin-tartean kokatzen delarik. Nabarmentzekoa da zahartzaroaren feminizazioa: 65 urtetik gora emakumeen proportzioa **128/100** da, eta 75 urtetik gora **144/100**. Iturria: Eustat, BUEE, Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

Biztanleria (Debagoiena, 2024)



Biztanleriaren zahartzea eta zahartzaroaren feminizazioa nabarmenak dira baita eskualde mailan ere. Iturria: Eustat, BUEE, Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

Hurrengo taulan euskal familien edo familia-etxeetako arazo mota nagusiak jasotzen ditu. Inkestako datuak hamahiru familia-etxe edo familia motaren arabera bereiziz jaso baziren ere, taulan soilik balio totalak adierazi dira. Ikusten denez, arazo nagusi gisa **gehien aipatu zena gaixotasuna/desgaitasuna** izan zen (%17). Elkarbizitza-unitateka jasotako datuak ere aztertu dira, %25eko langara hurbildu edo hura gainditu zuten arazo moten bila:

- Gaixotasuna/desgaitasunaren inguruan gainditu zuten langa ahaidetasunik gabeko kide anitzekoek (%34), familia ez-nuklearrek (%31), mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarrek (%30) eta guraso izandako ezkontideek (%24).
- Hauetaz gain, esanguratsua da %25eko langa hori gainditu zuen balio bakarra desgaitasunarekin lotuta egotea: **diru-eskasiaren arazoa gehienbat mendeko seme-alabak dituen guraso bakarrek** aipatu bait zuten (%27).

Familien arazo mota nagusia (%) (EAE, 2023)		
Gaixotasuna/desgaitasuna	17,0	
Enpleguaren kalitate kaskarra	12,9	
Diru-eskasia	12,5	
Langabezia, lan prekarioa	9,3	
Etxebizitzaren akats eta gabeziak	6,7	
Bizitza independentea sendotzea	4,6	
Pertsonak zaintzea	3,9	
Egoera familiarra	2,2	
Diskriminazioa/Baztertzea	0,6	
Seme-alaben etorkizuna	0,3	
Besteak	0,3	
Zehaztutakoetatik bat ere ez	29,8	

Iturria: Eustat, Familia-etxe/familieta kideak: Arazo mota nagusia EAEko familia-etxe edo familia motaren arabera (2023).

Hurrengo taulan isolamendu sozialerako arriskuaren oinarritzko adierazleak adierazi dira, hirigintzaren eta arkitekturaren ikuspegitik, herriguneko auzo edo eremu deberdinen arabera. Isolamendu sozialak lotura zuzena du zahartzearekin, desgaitasunarekin eta mendekotasunarekin, faktore horiek askotan elkar elikatzen baitute. Auzo jakin batean adineko pertsona gehiago egoteak, elkarbizitza-unitateak txikitzeak edo eta eraikinek igogailurik gabe jarraitzeak, isolamendurako arriskua areagotzen dute. Egoera horiek irigarritasun fisikoaren eta sozialaren gabeziekin lotuta daude, eta, ondorioz, udal politikek arreta berezia jarri behar diote auzo bakoitzaren ezaugarriei, desberdintasun espazialak murrizteko eta inklusioa sustatzeko.

Isolamendu sozialerako arriskuaren oinarritzko adierazleak					
Eremua, auzoa	>64 urteko biztanleak		Bizilagunak etxean (%)		Igogailurik EZ (%)
	Kopurua	%	1	1 edo 2	
ARETXABALETA	1598	22	11	60	755
Lausitta	30	3	16	52	18
Txarapea	179	26	7	61	0
Marubide	270	24	23	66	168
Erdigunea	163	29	10	72	83
Belorrieta	426	25	8	58	87
Araba hiribidea	348	29	29	63	167
Markole	44	14	22	47	31

*Iturria: Geuk egina, Lurdataren datuetan oinarrituta (2025). Aipatzekoa da Zaintza Ekosistemako lanketan zehar bakarrik bizi diren **65 urtetik gorako 349 pertsona identifikatu direla, horietatik 272 emakumezkoak direlarik (%78).***

1.1.3. Udala

Lehenko Irigarritasun Planen aurrean, IUPIek izaera estrategikoagoa hartu dute, eta beraz, testuinguru politikoak garrantzi gehiago hartu du. Arlo horretara hurbilketa bat egiteko, hurrengo taulatan honakoak jaso dira:

- Egungo udal gobernuaren osaera.
- Azken lau legealdietako alkatetzak, alderdi politikoei dagokionez.
- Udalaren antolaketa tekniko-politikoari buruzko informazio orokorra. Honek, besteak beste, jarduketaren antolaketarekin dauka zerikusia: “Jarduketa-eremuak” atalean azalduko dena aurreratuz, IUPI hau bi jarduketa-eremu nagusiren inguruan egituratu da: “Udalerri irisgarria” batetik eta “Udal irisgarria” bestetik. Taulari horren inguruko zutabe bat gehitu zaio, batzorde edo lantaldeen ondoan adierazi delarik horietako bakoitzari legokiokeen IUPIaren jarduketa-eremu nagusia.

Egungo udal gobernuaren osaera		
Agintaldia	Alderdia	Zinegotzi kopurua
2023-2027	EH Bildu.	10
	EAJ-PNV.	8
	PSE-EE.	2
	Elkarrekin Podemos.	1


Azken lau legealdietako alkateak		
Agintaldia	Alkatea	Alderdia
2011-2015	Ana Isabel Bolinaga Uribarren.	Bildu.
2015-2019	Unai Elgoro Oiarguren.	EAJ-PNV.
2019-2023	Unai Elgoro Oiarguren.	EAJ-PNV.
2023-2027	Garikoitz Iturbe Etxebarria.	EH Bildu.

Udal-antolaketa		IUPIaren eremuak
Udal batzordeak	Ogasuna eta pertsonala.	Udal irigarria
	Hirigintza.	Udalerri irigarria
	Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.	Udalerri irigarria
	Ongizatea.	Udal irigarria
	Berdintasuna.	Udal irigarria
	Kultura.	Udal irigarria
	Gazteria.	Udal irigarria
	Euskara.	Udal irigarria
	Garapen Ekonomikoa.	Udal irigarria
	Hezkuntza.	Udal irigarria
	Kirola.	Udal irigarria

IUPIa bi jarduketa-eremu nagusiren inguruan egituratu da: “Udalerri irigarria” eta “Udal irigarria”.
Taulan adierazi da, orohar, horietako zein legokiokeen batzorde bakoitzari.

1.2. Desgaitasuna eta mendekotasuna

Udalerriko daturik ez dagoenez, INEk 2020an egin zuen “Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkesta” sakoneko ikerketaren emaitzak jaso dira taulan. Ikus daitekeen bezala, adina da aldagai erabakiorrena, eta sexuaren arabera desberdinatsunak esanguratsuak dira oso.



Datuek garbi erakusten dute desgaitasuna estuki dagoela lotuta adinarekin, eta sexuaren eragina garrantzitsua dela. **Adin-taldean arabera**, desgaitasun-tasa handiagoak neurtu ziren emakumeen artean 35 urtetik aurrera eta gizonen artean 34 urtera arte (gizon gazteen desgaitasunak generoarekin izan dezake lotura, emakumeen aldean istripuen eragina altuagoa baita). **Sexuaren arabera**, alderik nabarmenena 70 urtetik aurrera jaso zen. Inkesta honek jarraipena eman dio 1999an eta 2008an egin zirenei: 2008. urtekoaren aldean desgaitasun-tasa nabarmen igo da 6-24 adin-tartean eta, aitzitik, asko jeitsi da 35-79 adin-tartean. Iturria: INE, Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkesta, 2020.

Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena

EAEkoko biztanleen bizi-itxaropenak urteak daramatza gora egiten: 2018an, desgaitasunik gabeko **bizi-itxaropena 70,5 (gizonetan) eta 72,8 (emakumeetan) urte zen**. Datu horri ñabardura interesgarria eranstean dio desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenaren adierazleak.

Bizi-itxaropenaren bilakaera, desgaitasunik gabe / desgaitasunarekin (EAE)

Urtea	Sexua	D-	D+	D- Desgaitasunik gabe / D+ Desgaitasunarekin
2018	Emak.	72,8	13,7	
	Gizon.	70,5	9,8	
2013	Emak.	73,1	13,3	
	Gizon.	69,3	10,3	
2007	Emak.	74,9	10,2	
	Gizon.	69,6	8,6	

Espero den desgaitasunik gabeko urte-kopuruak 1,2 urte egin du gora gizonetan (69,3 urte, 2013an) eta 0,3 urte behera emakumeetan (73,1 urte, 2013an). **Desgaitasunarekin bizitzeko urte kopurua**, ordea, 0,5 urte jaitsi da gizonetan eta 0,4 igo emakumeetan. Iturria: Osasun Saila, Osasunaren inkesta.

Hurrengo taulan adierazi dira desgaitasunak, ezintasun- eta zailtasun-motaren arabera. Ikus daitekeen bezala, irisgarritasun fisikoaren ingurukoetan hautematen da prebalentzia handiena.

Desgaitasunak, ezintasun- eta zailtasun-motaren arabera (% , Espainia, 2020)


Desgaitasuna	Emak.	Gizon.	
Mugitzea	69	39	
Etxeko bizitza	58	32	
Nork bere burua zaintzea	38	23	
Entzutea	31	24	
Ikustea	29	18	
Komunikatzea	24	19	
Ikastea	18	13	
Besteekin harremanak	14	14	

Desgaitasun mota guztiek **eragin handiagoa dute emakumeengan** gizonengan baino. Alderik handienak mugikortasun-arazoetan eta etxeko lanak egiteko zailtasunetan hauteman ziren. Iturria: INE, Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkesta, 2020.

1.2.1. Gizartearen zahartzea

Gauza jakinak dira desgaitasuna zahartzearekin lotuta dagoela eta gure gizartea gero eta zaharragoa dela. Joera global honen erakusgarri, hurrengo taulan 2001 eta 2021 urteen artean EAEko zahartze-indizeak izan duen bilakaera jaso da (64 urtetik gorakoen ehunekoa, biztanleria osoarekiko).


Zahartze-indizearen bilakaera (65 urte eta gehiagoko biztanleak, %, EAE, 2001-2021)



2021ean, 65 urte eta gehiagoko emakumeak emakume guztien laurdena baino gehiago ziren; adin-talde horretako gizonak 5 gizonetik bat baino gehiago ziren. 2001. urteaz geroztik, 65 urte eta gehiagoko biztanleria osoa ehuneko 5 puntu hazi da, %18tik %23ra. Iturria: Eustat, BUEE, Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

Aipagarria da 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren bilakaera ez dela homogeneoa izan adin-tarte guztietan, hazkunde erlatibo nabarmenena 84 urte baino gehiagokoen artean hauteman delarik.

65 urte eta gehiagoko adin-taldearen bilakaera (% EAE, 1976-2022)




Hiru adin-tarteetan hazkundea esanguratsua izanik, 84 urte baino gehiagokoen artean hauteman daiteke hazkunde erlatibo nabarmenena. Iturria: Eustat, BUEE, Biztanleen udal-erroldaren estatistika.

2036an, EAEn 65 urte edo gehiagoko biztanleak ia herena izango dira (%32), eta biztanleriaren erdiak 50 urte edo gehiago izango ditu.

Aurreikuspen guztien arabera, aurreko hamarkadetako joera orokorrak hurrengoetan ere jarraituko du. Hurrengo bi piramide gainjarriek Eustatek 2036 urterako egin duen demografia-proiektzioa erakusten dute: 85.000 biztanle gehiago izango lituzke EAEk, migrazio-saldo positiboak heriotzen igoera eta jaiotzen jaitsiera konpentsatuko lukeelarik. Heriotzen igoerak ez du esan nahi bizi-itxaropena murriztuko denik. Alderantziz, honek gora egingo luke: 2035ean, jaiotzean, emakumeentzat 89,1ekoa izatea aurreikusten da (86,3koa zen 2021ean), eta gizonentzat 84,2koa (80,7koa zen 2021ean). Iturria: Eustat, Biztanleria proiektzioak 2036.


Biztanleria-piramideak (EAE, 2021-2036)



2036an, EAEn 65 urte edo gehiagoko biztanleak ia herena izango dira (%32), eta biztanleriaren erdiak 50 urte edo gehiago izango ditu. Iturria: Eustat, Demografia-proiektzioak.

Alexandre Kalache eta Ilona Kickbusch-ek 1997 urtean hurrengo grafikoaren bitartez adierazi zuten adinaren eta gaitasun fisikoaren galeraren arteko harremana: gaitasuna adinarekin galdu egiten da, baina hainbat baldintzen arabera galera mantsotu edo leundu daiteke. Osasunaren eta zientzien arloko ikertzaileak izanik, grafikoaren arreta osoa funtzio-gaitasunaren marra beltzean jarri zuten Kalachek eta Kickbuschek, eredu honetan “desgaitasun atalasea” elementu finko gisa irudikatu zutelarik. Baina badakigu desgaitasun-atalasea ez dela finkoa, eta erakunde publikoen ardura izan behar lukeela pixkanaka atalase hori jeistea. Horixe da, hain zuzen, IUPI honen xedea eta eragin dezakeen onura: inguruneak irisgarriagoak eginez, lehen “desgaitutzat” genituen pertsonak “gai” bihurtzea. Zentzu horretan, atalase horren izena bera aldatu beharko litzateke: zuzenagoa litzateke “atalase desgaitzailea” balitz, berak —bere kokapenaren bitartez— sortzen baititu “desgaituak” (“desgaitasuna” eraikuntza sozial bat gehiago dela berretsiz).

Funtzio-gaitasuna eta adina (Kalache & Kickbusch, 1997)



Kalachek eta Kickbuschek “desgaitasun atalasea” elementu finko gisa irudikatu zuten, eta desgaitasunera “ez erortzeko” arlo soziosanitarioan jarri zuten azpimarra, haiek laguntzen baitiete pertsonen, banan-bana, funtzio-gaitasunaren galera mantsotzen. Aldiz, atalase horren kokapenean jartzen bada azpimarra, inguruneen diseinuan jarduten duten arduradunen erantzukizuna nabarmentzen da. **Izan ere, badakigu “desgaitasun-atalasea” mugi daitekeela, eta Irisgarritasun Planaren helburua dela, hain zuzen, atalase hori “jeistea”.**

1.2.2. Desgaitasuna eta mendekotasuna genero-ikuspegitik

Desgaitasuna duten emakumeek eta neskatoek diskriminazio mota ugari jasaten dituzte. Errealitate hori aitortzen dute Nazio Batuen Erakundearen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa sinatu zuten estatu guztiek. Kontuan izan behar da EAEn desgaitasuna duten emakumeen tasa gizonena baino nabarmen handiagoa dela. Genero-estereotipoek, desgaitasunari gehituta, ikuspegi bikoitza eskatzen dute politiketan. Tamalez, ikuspegi bikoitz hori falta da oraindik estrategia publiko gehienetan, eta horrek ondorio larriak ditu, bereziki genero-indarkeriako egoeretan.

Funtsezkoa da emakume horien babesa eta benetako parte-hartzea ziurtatzea. Hori dela eta, funtsezko gaia da Plan hau ezartzeko. Europar Batasuneko Desgaitasuna duten Emakume eta Neskatoen Manifestuak premia hori azpimarratzen du. Modu autonomoan bizi ahal izatea eta eremu guztietan bete-betean parte hartu ahal izatea bermatzeko eskatu du. Horren barruan sartzen da neurri zehatzak hartzea ingurune fisikorako, garraiorako, informaziorako eta komunikaziorako sarbide eraginkorra bermatzeko, teknologiak eta zerbitzu publikoak barne, bai hiriguneetan, bai landa-eremuetan. Adibidez, irisgarritasun-politikek (garraioa, komunikazioak, etab.) generoaren gaiari behar besteko arretarik jartzen ez diotenean, desgaitasuna duten emakumeak modu independentean bizitzea eragozten da. Sarbide-falta hori kritikoa da: indarkeriaren, abusuaren eta esplotazioaren aurkako babesa lortzeko duen gaitasunari eragiten dio, eta zaildu egiten du funtsezko osasun-zerbitzuak ematea, hala nola ugalketa-osasuna.

IUPIan kontuan hartuko da desgaitasuna duten emakumeek diru-sarrera txikiak izaten dituztela askotan, lan-partaidetza txikia izaten dutela eta ibilgailu pribatu gutxi izaten dituztela. Aldagai horiek, interseksionalitak diren beste batzuekin batera, kalteberatasun handiagoa sortzen dute, eta, beraz, funtsezkoa da ikuspegi hori txertatzea, ez soilik emakumeentzat eta nesKentzat, baita LGTBIQ+ pertsonentzat ere.

Desgaitasuna eta zainketa-lanak

- Zainketak jasotzen dituzten pertsonen ia erdia egunean zortzi ordu edo gehiagoz da artatua.
- Desgaitasuna duten pertsonen erdiak zaintza edo laguntza pertsonala jasotzen du: horien artean, erdiari soilik etxe berean bizi diren pertsonak ematen dizkiete zainketak, %12ari etxean bizi ez diren pertsonak, eta %13ri bi motatako zaintzaileek.

Nork zaintzen ditu desgaitasuna duten...

- ... 44 urte baino gutxiagokoak? Zaintzaile nagusia gurasoren bat da %70arentzat (%59an ama, %11an aita).
- ... 45 eta 79 urte bitartekoak? Zaintzaile nagusia ezkontidea edo bikotekidea da %48arentzat.
- 80 urte eta gehiagokoak? Zaintzaile nagusia seme-alabak dira %59arentzat (%41ean alaba, %18an semea).

Desgaitasunak dituztenen zaintzaileen profila (% , Espainia, 2020)

Adina	Emakum.	Gizonak
>79	2,9	0,9
65-79	9,6	4,9
45-64	41,0	20,7
30-44	6,4	6,8
<30	3,7	3,1

Zaintzaileen %64a emakumeak dira, profil ohikoenak 45 eta 64 urte bitarteko emakumeak eta, erdia izan arren, adin bereko gizonak direlarik.

Zainketa-lanekin duen harremanagatik, ezin da aipatu gabe utzi gneeroen araberrako lan-banaketak eragiten duen arrakala errenta ekonomikoari dagokionez. Arrakala hori ondorio bat bezala ikus dezakegu, baina Irismetaritasun Plan batean arrakala hori beste arazo baten oinarria da: errenta baxuagoa izateak baliabideetara iristea baldintzatzen duenez, integrala izan nahi duen plan batek hori ere kontuan izan beharko du.

65 urte eta gehiagoko biztanleen urteko errenta (EAE, 2021)

Adina	Gizonak	Emakumeak
>94	17.387	14.176
90-94	20.102	14.701
85-89	21.546	14.002
80-84	23.141	13.693
75-79	25.034	12.673
70-74	26.204	13.422
65-69	26.802	15.989

Emakumeen urteko pertsona-errenta erabilgarria adin-tarte guztietan da gizonezkoena baino baxuagoa, arrakala larriena 70-79 adin-tartean dagoelarik: gizonek duten errentaren erdia daukate emakumeek. Emakumeetan 70 urtetik gora ez da hautematen gizonetan ikus daitekeen jaitsiera, alarguntza-pentsioari esker. Iturria: Eustat, Adineko biztanleen panorama estatistikoa, 2021.

Laburbilduz

Zahartzea, desgaitasuna edo eta mendekotasuna erronka partekatuak dira gure gizartean. Ingurune irisgarriak garrantzitsuak dira, baina are garrantzitsuagoak dira genero-ikuspegitik, hainbat arrazoiengatik:

- Desgaitasunen bat duten edo mendekotasun egoeran dauden pertsonan artean, **askoz gehiago direlako emakumeak gizonak baino** (ikus grafikoa gorago, “Desgaitasuna eta mendekotasuna” atalean).
- Desgaitasunen bat duten edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen dituztenen artean, **askoz gehiago direlako emakumeak gizonak baino** (ikus grafikoa atal honetan bertan, beheago).
- Ingurune irisgarriagoek **zaintzaileen lana erraztu eta bizimodua hobetu dezaketelako**, zainketa-lanak erosoagoak egin ditzaketen neurrian.
- Ingurune irisgarriagoek **zaintzaileen denbora-errenta hobetu eta, ondorioz, bere autonomia handitu dezaketelako**, desgaitasunen bat dutenen edo mendekotasun egoeran dauden autonomia handituko litzatekeen neurri berean.

Genero-ikuspegiaren ekarpena, ordea, ez da soilik aurreko horietara mugatzen. Irisgarritasuna ulertzeko moduan zaintzailearen begirada eta beharrak txertatuko balira, horrek autonomia pertsonalaren inguruan ezarriak ditugun paradigmatik kolokan jartzea ekarri beharko luke:

Ezin dugu baztertu errealitate bat: irisgarritasunaren esparruan, egoera asko eta askotan subjektua bi gorputzek osatzen dute, ez batek. Hori ukaezina izan arren, araudian —dimentsioetan esaterako— ez dago “bi gorputz” horien inguruko arrastorik.

“Autosufizientzia” kontzeptuaren tranpak askotan salatu dira genero-ikuspegitik, eta antzeko ariketa egin liteke “autonomia pertsonalaren” inguruan. Irisgarritasunari dagokionez, “autonomia pertsonala” da helburu nagusia, eta ulertzekoa da baita ere araudietan erreferentziazko subjektua norbanakoa izatea, eta ondorioz, neurriak eta dimentsioak norbanako hori autonomo izatera bideratzea. Baina genero-ikuspegitik azpimarratu nahi da arauak ez duela aintzat hartzen “autonomia lagundua” deitu dezakegun egoera ohikoena: eguneroko jardueratan desgaitasuna duen pertsona batek zaintzaile baten laguntza jasotzen duenekoa. Alegia, ezin dugula baztertu errealitate bat: irisgarritasunaren esparruan, egoera asko eta askotan subjektua bi gorputzek osatzen dute, ez batek. Hori ukaezina izan arren, araudian —dimentsioetan esaterako— ez dago “bi gorputz” horien inguruko arrastorik.

1.3. IUPIaren idazketa

1.3.1. Aurreko Irisgarritasun Planak

Hurrengo taulan jaso dira aurretik idatzi diren Irisgarritasun Planak edo eta eguneraketa-dokumentuak.

Aurreko Irisgarritasun Planak		
Urtea	Dokumentua	Helburu operatibo nagusia
2005	Aretxabaletako Irisgarritasun Plana.	— Irisgarritasun Plana idaztea. — Egokitzapen-obrak finantzatzeko baliabidea eskuratzea.
2018	Aretxabaletako Irisgarritasun Planaren eguneraketa.	— Irisgarritasun Plana eguneratzea. — Planean jarduketa gehiago sartzea, egokitzapen-obrak finantzatzeko baliabidea eskuratzeko.

Esku-hartze jakin baterako dirulaguntza eskatzeko baldintza zen jarduera hori Planean jasota egotea. Ondorioz, joera nagusia izan zen Irisgarritasun Plan horietan ahalik eta jarduketa gehien sartzea, planifikatzeko baino, finantzatzeko tresna gisa ulertu eta idatzi zirelarik kasu askotan.

Hurrengo taulan azken Irisgarritasun Planaren betetze-mailaren ebaluazioa jaso da. Noski, honek ez du esan nahi azken urteotan irisgarritasuna hobetu duen beste lanik gauzatu ez denik. Edozein kasutan, betetze maila baxua edo partziala izateak, Irisgarritasun Planarekin dauka zerikusia batez ere. Izan ere, azken Planak jaso zuen jarduketen kopurua gehiegizkoa zen arrazoizko epe batean egin ahal izateko. Arazo hori ez da soilik Plan harena, EAEn egin izan diren Irisgarritasun Plan gehienena baizik. Honek, Eusko Jaurlaritzak ematen zituen diru-laguntzetan eskatzen zen baldintzarekin dauka zerikusia. Izan ere, esku-hartze jakin baterako dirulaguntza eskatzeko baldintza zen jarduera hori Planean jasota egotea. Ondorioz, joera nagusia izan zen Irisgarritasun Plan horietan ahalik eta jarduketa gehien sartzea, planifikatzeko baino, finantzatzeko tresna gisa ulertu eta idatzi zirelarik kasu askotan.

Aretxabaletako Irisgarritasun Plana (2008)			Ebaluazioa		
Esparrua	Jarduketa	Aurrekontua	Osoa	Partz. Alter.	Egin gabe
Eraikinak	Ayuntamiento	169.277,21		X	
Eraikinak	Escuela Kurtzeberri	151.251,73	X		
Eraikinak	Residencia de Ancianos	249.372,46	X		
Eraikinak	Polideportivo	216.648,95	X		
Eraikinak	Euskal Txoko	123.747,79			
	Eraikinak	910.298,14			
Bideak	Otalora kalea	96.987,22	X		
Bideak	Otalora - Errekabarren kalea	111.786,60			X
Bideak	Santakurtz - Basabide - Durana - Sarasate kaleak	778.790,08	X		
Bideak	Belorrieta auzoa - Bitarte kalea	122.480,98		X	
Bideak	Nafarroa kalea - Araba Ibilbidea	159.491,28		X	
Bideak	Markole auzoa - Solohandi kalea	893.992,10		X	
Bideak	Paseo Cementerio - Santakurtz kalea	860.290,08		X	
Bideak	Basabe poligonoa (Basabe bidea - Andra Mari kalea)	1.446.967,39	X		
Bideak	Basabe poligonoa - Araba ibilbidea (mendebaldea)	95.558,94		X	
Bideak	Trenbidea - Bidegorri Eskoriatza	123.464,38		X	
Bideak	Txarapea bidea - Markole Auzoa	264.177,55		X	
Bideak	Txarapea bidea - Lausita kalea	59.261,28		X	
Bideak	Deba Ibaia Ibilbidea - GI-3132	16.454,51	X		
Bideak	Deba Ibaia Ibilbidea (GI-3920 - Larrin plaza)	15.130,18			X
Bideak	Deba Ibaia Ibilbidea (Larrin plaza - Belorrieta auzoa)	14.629,43	X		
Bideak	Deba Ibaia Ibilbidea - Loramendi kalea	2.005,23	X		
Bideak	Etxebarri auzoa - Loramendi kalea	38.523,59		X	
Bideak	Etxebarri auzoa - Rotonda Etxebarri	1.822,94			
Bideak	Markole auzoa	57.519,64			

Bideak	Araba ibilbidea - Solohandi kalea - Bainetxe kalea	18.595,34	X	
Bideak	Loramendi kalea - Bainetxe poligonoa	49.102,05	X	
Bideak	Basabe poligonoa - Araba ibilbidea (ekialdea)	284.292,63	X	
Bideak	Aralar kalea - Araba ibilbidea - Iralabarri plaza - Loramendi kalea - Zaraia kalea	1.711.483,21	X	
Bideak	Etxebarri auzoa - TXarapea bidea - Lausita kalea - Belorrieta auzoa	119.754,73	X	
Bideak	Andra Mari auzoa - Rotonda Geltoki plaza - Mitarte kalea - Santakruz kalea - Ilargi plaza	83.763,90	X	
Bideak	Lausita kalea - Errekabarren	76.263,92	X	
Bideak	Guridi - Elkano - Otalora - Murubide - GI-3920 - Sarasate kaleak	247.594,62	X	
Bideak	Bedarretako San Miguel auzoa	380.462,91	X	
Bideak	Paseo Cementerio - Santakurtz kalea	46.599,67		X
Bideak		8.177.246,38		
Guztira		9.087.544,52		

1.3.2. Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala


IUEE—Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiak (ISEK, 2020, [PDF, 121 orr.](#)) ekarri zuen ikuskera integralak aldaketa sakona dakar orain arte idatzi izan diren Irisgarritasun Planen aldean. Estrategia hori hainbat ezarpen edo baldintzatan gauzatu zen lehenago, EAEn IUPIak idazteko jarraibideak eta orientazioa jasotzen dituen dokumentuan zehaztu zirenak (ISEK, 2023, [PDF, 83 orr.](#)). IUPIen antolaketan, edukietan eta idazketa-metodologian aldaketa sakonak eragin dituzten baldintzen artean, bost nabarmendu nahi izan dira. Bost horiei seigarren bat gehitu zaio, IUEEak ezarri ez bazuen ere, Planak ulertzeko modua irauli duelako, udalerri txiki eta ertainetan batez ere.

- 1. Integralak izan behar dute.** Orain arteko Planek ingurune urbanizatua eta eraikia zituzten bere jarduketa-eremu nagusi gisa. Hortik kanpoko alderdiak ere lantzen baziren ere, elementu fisikoekin lotu izan dira ia beti: esaterako, komunikazioari dagokionez, ukimenezko zoladura edo errotulazioa izan dira batez ere jarduketa-esparrua. IUPIek, aldiz, Udalaren jardunbide osoa hartu beharko dute bere barruan. Berritasun honetara egokitzea ez da erraza izango:
 - a. Kontuan izan behar da bizpahiru hamarkadako inertzia indartsua izan daitekeela.
 - b. Ezin dira alde batera utzi hirigintzaren eta arkitekturaren esparruek IUPI berriak baldintzatzen jarraitzen dituztela: esaterako, ISEK—Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako kontsulta-organoa da, edo eta IUPIen idazketak Udaletako Hirigintza edo Obra eta Zerbitzuetako teknikarien ardurapean jarraitzen du.
 - c. Aurreko Irisgarritasun Planen idazketan Udalek arduradun tekniko garbi bat zeukaten bezala, IUPI hauetako esparru “berrietarako” arduradun hori falta da, planaren alderdi horren idazketa zaildu delarik.
- 2. Lau urteko Planak idatzi behar dira.** Baldintza honek Plan zehatzagoak eta laburragoak idaztea ekarri beharko luke, eta ondorioz, gauzagarriagoak. Baina beste alde batera, hirigintzari lotutako hainbat jarduketa hain epe motzeko plan batean txertatzea zaildu dezake, batez ere kudeaketa urbanistiko korapilatsua aurreikusten den kasuetan: eremuan Udalez kanpoko eragileek eskumenak dituztelako, finantzaketa baldintzatua dagoelako, etab.
- 3. Izaera estrategikoa izan behar dute.** Integraltasunaren ondorioetako bat da Planek izaera estrategikoa hartzea: zeharlerrotasunaren bitartez Udalaren sail guztiak hartu beharko lituzkeen Plan batek koherentea izan behar du erakundeak ezarriak dituen lerro estrategikoekin. Hori dela eta, alderdi politikoen parte-hartzea aurreikusi da, bai eta IUPIaren inguruko begirada desberdinak kontrastatzeko espazioak ere.
- 4. Erakundearen eta herritarren partaidetzarekin osatu behar dira.** Planetan integraltasuna eta zeharlerrotasuna txertatu nahi dira, eta horretarako ezinbestekoa izango da partaidetza, esparru desberdinetan: udaleko sailena batetik, herritarrena eta irisgarritasunaren inguruko kolektiboena bestetik. Baldintza honen bi ondorio nabarmendu nahi dira: batetik, Planak konpromiso-maila altuagoa izango du, eta bestetik, idazketa prozesua bera zaildu da, are zailagoa lan honi lotuta parte-hartze prozesurik aurreikusi ez bazen.
- 5. IUPIak argitaratu egingo dira.** Honek aurrekoarekin dauka lotura: IUPIen edukia udal-webgunean argitaratu beharko dela ezarri zuen diru-laguntzak, kontsulta publikoa ahalbidetzeko. Alegia, IUPI hauek nolabaiteko konpromisoa adieraziko lukete Udalaren eta herritarren artean, ez soilik partaidetza-prozesu baten ondorio izan direlako, baizik eta dokumentu publiko eta eskuragarriak izango direlako.
- 6. Ez dira finantzaketarako tresnak izango, plangintzarako baizik.** Goian aipatu bezala, eta IUEEak ezarria ez bada ere, kronologikoki berekin batera gertatu da Eusko Jaurlaritzak Irisgarritasun Planetan jasotako obrak finantzatzeko ematen zituen diru-laguntzak etetea. Alegia, hemendik aurrera ez da aurreikusten diru-laguntzarik Eusko Jaurlaritzaren aldetik espezifikoki IUPIan jasotako lanak gauzatzeko. Honek bi ondorio nagusi ekarri ditu IUPI, batez ere Udal txiki eta ertainetara. Batetik, Plan zehatzagoak (laburragoak) idatziko dira hemendik aurrera, bide batez IUPIetarako ezarri den lau urteko indarraldiarekin koherentea dena. Eta bestetik, Planak ulertzeko modua aldatzea ekarri dute: Jarduketa-Planak errealistagoak izango dira eta plangintza gauzagarriaren begiradatik idatziko dira, lehengo zerrenda amaigabeak saihestuz. Ikus aipamena aurreko atalean.

Dena den, gorago aipatu den ikuskera integrala ez da kontu berria. Esaterako, IMSERSOk duela ia 20 urte eredu integralago baten beharra jarri zuen mahai gainean, taula soil batean bi ereduen arteko alderaketa eguin zuelarik.

Irisgarritasun Planak: bi eredu		
	Oztopoak kentzen dituzten “Irisgarritasun Planak”	Irisgarritasun unibertsala sustatzen duten “IUPIak”
Onuradunak	Desgaitasunen bat duten pertsonak, batez ere mugikortasun murriztua duten pertsonak.	Herritar guztiak.
Helburua	Sarbidea erraztea.	Pertsona guztien aukera-berdintasuna, autonomia eta bizi-kalitatea sustatzea, eskubideak gauzatzean.
Jarduketa- eremua	SEKTORIALA 1. Hirigintza. 2. Eraikuntza. 3. Garraioa.	ZEHARKAKOA 1. Espazioak. 2. Produktuak. 3. Ekipamenduak. 4. Zerbitzuak.
Estrategia	Oztopo fisikoak kentzea.	Pertsona guztientzako diseinua eta oztopoak kentzea, mugikortasunari, zentzumenei edo ezagutzari dagozkionak.
Aplikazio- neurriak	Araudia aplikatzea.	1. Araudia aplikatzea. 2. Kudeaketa-, kontrol- eta jarraipen-neurriak. 3. Herritarrek kontzientziaztea. 4. Prestakuntza. 5. Herritarren parte-hartzea.
Tresnak	Epe laburrerako jarduketa-planak.	Epe luzerako plangintza estrategikoa, politika integralak abian jarrita.
Eragile arduradunak	Proiektuen gauzatzaileak.	1. Herri-administrazioa. 2. Proiektuen gauzatzaileak. 3. Jabeak, merkatariak, etab. 4. Herritar guztiak.

Iturria: La accesibilidad universal en los municipios: guía para una política integral de promoción y gestión (IMSERSO, ACCEPLAN, 2006).



2015eko uztailan, NBEko Diseinu Grafikoko Unitateak irigarritasunaren sinbolo berri bat diseinatu zuen. Irudiak, besoak zabalik, pertsonen gaitasunak alde batera utzi eta inklusioa adierazi nahi du.

Irigarritasun Unibertsalaren izaera integrala irudikatzeko sortua, aurreko sinboloek desgaitasunarekin (desgaitasun espezifiko batekin, gainera) zuten lotura hautsi zen. Baina hain zuzen, horixe bera da hainbat kolektibotatik salatzen zaion ahulezia sinboloari: unibertsaltasuna edo zeharlerrotasuna irudikatzeak, ikusgaitasuna murrizteko arriskua dakarrela berekin. Informazio gehiago: [Wikipedia](https://en.wikipedia.org/wiki/International_Symbol_of_Access).

1.3.3. Metodologia

IUPI honen idazketan zehar Irigarritasun Plan batean ohikoak diren pausoak jarraitu badira ere, **metodologian zenbait aldaketa txertatu dira**, EAEn IUPIak idazteko jarraibideak eta orientazioa jasotzen dituen dokumentuak ekarri zituen berritasunetatik eratorriak gehienak (ISEK, 2023, [PDF, 83 orr.](#)). Ikus, baita ere, aurreko puntuan nabarmendu eta IUPI honen idazketan txertatu diren aldaketak:

- IUPIek integralak izan behar dute.
- Lau urteko Planak idatzi behar dira.
- Izaera estrategikoa izan behar dute.
- Erakundearen eta herritarren partaidetzarekin osatu behar dira.
- IUPIak argitaratu egingo dira.
- Ez dira finantzaketarako tresnak izango, plangintzarako baizik.

Guzti horien ondorioa da IUPI errealista eta gauzagarria egin nahi izan dela, Udalaren baliabideen neurritik doitu. Hurrengo orrialdeetan jaso da, alderdi honi dagokionez, IUPI honen idazketaren hasiera-hasieratik mahaia gainez izan diren bi kezka nagusi:

- **Nola doitu IUPIa Udalaren baliabide ekonomiko zein pertsonaletara.** Alderdi hau hurrengo orrialdeetan landu da.
- **Nola doitu laneko metodologia bera begirada horretara.** Aurreko puntuak ez du lehenespenei ariketa bat eskatzen soilik. Hori baino gehiago, lan egiteko modua aldatzea ere ekarri du, zenbait esparrutan balio-erantsi baxuko lanak kendu direlarik. Alderdi honek batez ere diagnostikoari eragin dio. Ikus "3. Irismena eta diagnostikoa" atala, aurrerago.

“Udalak egin beharko lukeen guztia” aztertzen eta zerrendatzen hasi aurretik, “Udalak ekonomikoki egin lezakeena” aurreikusi nahi izan da IUPIaren idazketa prozesuaren hasiera-hasieratik.

Gorago ere aipatu den bezala, Eusko Jaurlaritzak Irisgarritasun Planetan jasota zeuden jarduketak finantzatzeko diru-laguntzak emateari utzi zion duela hiru urte. Honek eragin handia izan du IUPIaren idazketan, laneko metodologia bera aldatu eta lehenespen-ariketa zorrotza egin behar izan delarik. Horregatik, Aretxabaletako irisgarritasuna hobetzeko “Udalak egin beharko lukeen guztia” aztertzen eta zerrendatzen hasi aurretik, “Udalak ekonomikoki egin lezakeena” aurreikusi nahi izan da IUPIaren idazketa prozesuaren hasiera-hasieratik.

IUPIaren irismena baldintzatuko duen erreferentziako aurrekontua finkatzeko, hainbat iturritatik jasotako informazioa erabili da:

- Udal gastua.
- Zuzeneko inbertsioa azpiegiturretan.
- Inbertsio errealak.
- Barakaldoko IUPI, lehengo Irisgarritasun Planen aurrean.

Udal gastua, gauzatutakoa (€/biztanle)

2023	1.606	
2022	1.518	
2021	1.296	
2020	1.310	
2019	1.381	

Udal gastuak hainbat atal nagusi batuz osatzen dira: IUPIari dagokionez duen garrantziagatik, “Inbertsio errealak” atala nabarmendu nahi izan da, adierazpen grafikoan kolore ilunagoa erabiliz. Ikusten denez, inbertsioak kentzen badira udal gastuak nahiko egonkorak dira, aldakortasuna batez ere inbertsioen eskutik datorrelarik (nabarmentzeko da COVID-19aren ondoreneko igoera atal horretan).

IUPIaren aurrekontuaren zatirik handiena inbertsio bitartez gauzatuko denez, Udalak 2019-2023 ekitaldietan azpiegiturretan gauzatu dituen zuzeneko inbertsioak jaso dira, erreferentzia gisa.

Zuzeneko inbertsioa azpiegiturretan (€/biztanle)			
2023	Aurrekont.	599	
	Gauzatut.	341	
2022	Aurrekont.	494	
	Gauzatut.	340	
2021	Aurrekont.	406	
	Gauzatut.	99	
2020	Aurrekont.	131	
	Gauzatut.	112	
2019	Aurrekont.	118	
	Gauzatut.	100	
Batezb.	Aurrekont.	350	
	Gauzatut.	198	

Aurreko taulan adierazi bezala, azpiegiturretan egindako zuzeneko inbertsioetan nabarmena da COVID-19aren ondorengo igoera, 2019-2023 ekitaldietako batezbestekoa **198 eurokoa** izan delarik. Gauzatutako gastuez gain, ekitaldi hasierako udal-aurrekontuetan adierazitakoa ere jaso da taulan: aipagarria da azken urteetako ekitaldien hasieran aurreikusitakoaren eta amaieran gauzatutakoaren arteko aldea. Iturria: Eustat (EAEko udalen gastuen aurrekontuak lurralde eremuen arabera, EAEko udalen gastuak lurralde eremuen arabera, EAEko biztanleria, lurralde eremuaren arabera).

Noski, erreferentzia hori ezin daiteke hartu IUPIaren aurrekonturako erreferentzia gisa. Izan ere, euro horietatik zenbat bideratu ziren irisgarritasuna hobetzera? Soilk jarduketa espezifikoak bilatu behar dira, ala zeharka irisgarritasuna txertatu duten jarduketak ere hartu behar dira kontuan?

Aurreko galderei erantzuteko, 2025eko udal-aurrekontuak hartu eta hurrengo ariketa egin da: inbertsioen ataleko partidak banaka aztertu, eta irigarritasunaren hobekuntza izan dezaketen gutxi gorabeherako estimazioa egin da:

- Kolore grisez adierazi dira irigarritasunarekin nolabaiteko lotura izango luketen partiden lerroak.
- Horietan, irigarritasunarekin zeharkako lotura izango luketen partidak bere horretan utzi dira (0,10 eta 0,50 arteko zenbatespena, gris argian), irigarritasunarekin zuzenean lotura izango luketenak nabarmendu direlarik (0,50 eta 1,00 arteko zenbatespena, gris ilunean).

Ikusiko denez, Udalak egin nahi dituen hainbat inbertsio zuzenean daude lotuta irigarritasunaren sustapenarekin, eta horietaz gain, beste askotan txerta daitezke irigarritasun unibertsalarekin lotutako irizpideak. Hori da ariketa honen ondorio nagusietako bat: irigarritasuna jarduketa espezifiko bidez hobetzeaz gain, "proiektu orokorren" bidez ere hobetu behar dela alegia.

Inbertsio errealeen xehetasuna (2025) Ekitaldi hasierako Udal-aurrekontuetan			
Ekipo informatikoa liburutegirako	3.000		
Ekipo informatikoak erostea	25.000		
Errekabarren 10 - Sistema inform - Ongizate	3.000		
Prog. inform. lizentziak erostea (software)	30.000		
Andramari auzuneko urbanizazioa	450.000	0,50	225.000
Andramari auzuneko urb-obra zuzendaritza	5.500	0,50	2.750
Iturrizar - Igogailua	278.000	1,00	278.000
Kiroldegi aurreko kirol gunea	518.200	0,10	51.820
Lurra erostea - Santutxu	520.000		
Muruko antenaren eraikina	1.700		
Alokairu publikoko etxebizitzak	1	0,10	0
Ludoteka berriztu	1	0,10	0
Kultura - Mahaiak eta aulkiak	18.200	0,10	1.820
Errekabarren 10 - Altzariak - Ongizate	18.200	0,10	1.820
Proiektuak eta azterlanak	68.500	0,25	17.125
Asatzako bidegorriko zubiaren konponketa	100.000	0,75	75.000
Bankuen eta bestelakoen erosketa	18.000	0,75	13.500
Zerbitzuetako inbertsioak - Erremintak	18.200		
Zerbitzuetako inbertsioak - Altzariak	4.000		
Argiteri publikoa berritzea (LED)	47.754	0,25	11.939

Kurtzebarri eskola - Plaka solarrak	65.000		
Arkuperako LED argiak	8.000	0,10	800
Arkuperako plaka solarrak	69.000		
Eguzki plakak - Futbol zelaia	1		
Kultura - Karpa ertainak	10.000		
Liburutegirako altzariak	9.000	0,10	900
Liburu funtsak	14.000	0,10	1.400
Teknologi berriak liburutegirako	2.000	0,25	500
Kiroldegiko instalazioak	35.000		
Kiroldegirako tresneria	6.000		
Kiroldegirako altzariak	6.500	0,10	650
Futbol zelaia - Mobiliario	500	0,10	50
Renting kiroldegiko makinak	38.431	0,10	3.843
Eskolen ekipamendua	800	0,10	80
Gaztelekurako altzariak	2.000	0,10	200
Inbertsioak GUZTIRA	2.393.488		
Irisgarritasun Unibertsalarekin zerikusia dutenak		%29	687.197
Inbertsioak, biztanleko (7.208 biztanle 2024/01/01an)			
Inbertsioak GUZTIRA	332		
Irisgarritasun Unibertsalarekin zerikusia dutenak			95

Aurreko taulan adierazitako ariketa horixe bera egin da 2020 eta 2024 urteen arteko udal-aurrekontuetako inbertsio errealean atalean jasotakoekin, emaitza hurrengo taulan adierazi delarik: ikus daitekeen bezala, inbertsio errealean %24 eta %51 artean leudeke Irigarritasun Unibertsalarekin zuzeneko zein zeharkako lotura izango luketenak, batezbestekoa %43ekoa izango litzatekelarik.

Inbertsio errealak (ekitaldi hasierako Udal-aurrekontuetan)			
Urtea	Guztira	Irigarritasun Unibertsalarekin zerikusia dutenak	
2025	2.393.488	687.197	%29
2024	2.986.598	951.741	%32
2023	2.782.173	1.413.995	%51
2022	3.501.995	1.243.708	%36
2021	5.083.327	1.794.243	%35
2020	926.905	222.031	%24
Batezbestekoa		1.065.108	%35

Goiko taulan ondorioztatu den batezbestekoa (%35) zuzenean aplikatzea ez da gomendagarria. Izan ere, Irigarritasun Unibertsala zeharka ere txertatu behar den ardatza bada ere, IUPI baten Jarduketa-Planak espezifikagoa izan beharra dauka, bere izaera gal ez dezan. Esperientziak erakusten digu Aretxabaletaren tamainako udalerrietan Irigarritasun Unibertsalarekin lotutako gastuak udal-inbertsioen kapituluaren %15 eta %40 bitartekoak izan daitezkeela. Beraz, “Zuzeneko inbertsioa azpiegituretan” taulako batezbestekoa hartuz eta zuhurtzia-irizpideei jarraituz, **IUPI honetarako 30 euro/biztanle-urteko erreferentzia-ratioa ezarri da.**

IUPIaren aurrekonturako erreferentzia-ratioa (€/biztanle·urte)			
Gauzatutako zuzeneko inbertsioa azpiegituretan (2019-2023)	%15	%40	IUPIrako erreferentzia
198	30	79	30

Erreferentzia hau beste batzuren ondoan jar daiteke: esaterako, Barakaldoko IUPIak —hein batean Irigarritasun Unibertsalerako Plan Integralen idazketarako pilotu edo eredu izan denak— 8 milioiko aurrekontua aurreikusi du (**20 euro/biztanle-urtekoa** alegia). Azken kopuru hau zuhurtziaz hartu behar da, udalerriaren tamainak zuzenean eragiten baitu gisa honetako inbertsioei dagozkien ratioen gainean: zenbat eta biztanle gehiago izan udalerrri batek, orduan eta baxuagoak izan ohi dira horiek.

Udal baliabideak batez ere arlo ekonomikoarekin lotzen badira ere, hori bezain garrantzitsuak izango dira Udalak dituen baliabide pertsonalak Plana aurrera eramateko.

Udal baliabideak batez ere arlo ekonomikoarekin lotzen badira ere, hori bezain garrantzitsuak izango dira Udalak dituen baliabide pertsonalak Plana aurrera eramateko. Hala, baliabide ekonomikoekin egin den ariketa beretsua egin da baliabide pertsonalekin ere: une honetako egoera zehatza islatzen ez badu ere, hurrengo taula txertatu da, baliabide pertsonal horien erakusgarri. Kontuan izan behar da funtzionarioak eta pertsonal laborala zerrendatu direla, eta horietaz gain badagoela langile gehiago: gizarte zerbitzuetan, kiroletan, kulturean...

“Jarduketa-eremuak” atalean azalduko dena aurreratuz, IUPI hau bi jarduketa-eremu nagusiren inguruan egituratu da: “Udalerri irisgarria” batetik eta “Udal irisgarria” bestetik. Taulari horren inguruko informazioa gehitu zaio, lanpostuen ondoan adierazi delarik orohar horietako bakoitzari legokiokkeen IUPIaren jarduketa-eremu nagusia. Ikus daitekeenez, **Udalak baliabide pertsonal mugatuak ditu Plana aurrera eramateko**, sail gehienetan arduradun tekniko bakarra dagoelarik.

Funtzionarioak eta pertsonal laborala (2018)

Lanpostua	Kopurua
Idazkaria.	1
Kontuhartzailea.	1
Hirigintzako administraria.	1
Liburutegiko laguntzailea.	1
Ekonomia arloko teknikaria.	1
Kirol teknikaria.	1
Gizarte laguntzailea.	2
Euskara teknikari-itxultzailea.	1
Kontuhartzailetzako teknikaria.	1
Sarrerako administrari laguntzailea.	2
Aparejadorea.	1
Hirigintzako teknikaria.	1
Zerbitzuetako burua.	1
Udaltzaingo burua.	1

Udaltzaina.		4
Ehorzlea/Peoia.		2
Kultura teknikaria.		1
Kultura laguntzailea.		1
Peoia.		1
Dirubilletako eta Idazkaritzako Administraria.		1
Informatikoa.		1
Drogomenpekotasun teknikaria.		1
Zuzendaria.	Urats-Gain.	1
Klinika laguntzailea.	Urats-Gain.	5
	Guztira	34
IUPIaren esparruak	Udalerri irisgarria	3
	Udal irisgarria	5

“Jarduketa-eremuak” atalean azalduko dena aurreratuz, IUPI hau bi esparru nagusiren inguruan egituratu da. Taulari horren inguruko informazioa gehitu zaio, lanpostuen ondoan adierazi delarik gutxi gorabehera horietako bakoitzari legokiokeen IUPIaren esparru nagusia. Helburua ez da zehaztasuna edo gaurkotasuna (azken datu irekiak 2018koak dira), baizik eta adieraztea Udalak baliabide pertsonal mugatuak dituela Plana aurrera eramateko.

1.3.4. Idazketa-prozesuaren memoria

Planaren idazketaren koordinazioa talde-lan gisa planteatu da: Planaren Koordinazio Taldearen bitartez egin da, Udaleko arduradun tekniko eta politikoez zein erredakzio-taldeko ordezkariak osatua. Proposatutako koordinazio-taldeak kide eta oinarritzko eginkizun hauek izan ditu:

Planaren idazketarako koordinazio-taldea	
Kidea	Oinarritzko funtziioak
1 Gobernu Taldearen ordezkaria.	— Zeharlerrotasuna bermatzea, Plana arduradun eta langile guztietara iritsi dadin: Udalaren sailetan, Udalari lotutako erakunde publikoetan, kontratatuak dituen enpresetan. — Gizarteko eragile garrantzitsuenen parte-hartzea sustatzea: beste erakunde publikoak, enpresak, elkarteak, herritarrak... — Plana Udalaren ildo estrategikoekin lerrokatzea.
2 “Udalerri irisgarria” esparruko arduradun teknikoa.	Planaren idazketa gidatzea eta gainbegiratzea, honako esparruetan: — Aire libreko espazio publikoa: oinezko ibilbideak eta bidegorriak, espazio publikoak, ekipamenduak, aldi baterako jarduerak. — Eraikin publikoak. — Garraio publikoaren ingurune fisikoak. — Eraikin pribatuak: sarbide edo erabilera publikokoak, etxebizitzak.
3 “Udal irisgarria” esparruko arduradun teknikoa.	Planaren idazketa gidatzea eta gainbegiratzea, honako esparruetan: — Zerbitzuak eta ekintzak. — Komunikazioa eta gardentasuna. — Arduradun eta langile guztiak kontuan hartuz: Udalaren sailetan, Udalari lotutako erakunde publikoetan, kontratatuak dituen enpresetan.
4 Planari lotutako komunikazioaren eta parte-hartzearen arduradun teknikoa.	IUPIaren Komunikazio- eta Partaidetza-Planaren idazketa gidatzea eta gainbegiratzea, bai eta komunikazioari eta parte-hartzeari lotutako ekintzatzat arduratzea ere: — IUPIaren idazketa-prozesuan zehar. — IUPIaren indarraldian. — Honako eragileak kontuan hartuz: Udaleko ordezkari politikoak, Udaleko arduradun teknikoak eta langileak, talde zaurgarrienak irisgarritasunari dagokionez, herritarrak.
5 Planaren kudeatzailea	Udal txiki-ertainetan, proposatzen da ardura hau aurreko 3 lerroetako bateko arduradun tekniko batek hartzea, honako zereginak proposatzen direlarik: — Planak ezarritako jarduketak dagokion unean abian jartzea, komunikazioaren eta parte-hartzearen ingurukoak barne. — Jarduketen jarraipena egitea eta ebaluaziorako informazioa jasotzea.
6 Projekta Urbes	— Planaren idazketa egitea eta aholkularitza ematea.

Idazketa-prozesuaren eskema orokorra

Urratsak

Hiru urratseko prozesua ezarri da.

- Diagnostikoa.
- Proposamenak egitea eta jarduketak zehaztu eta lehenestea.

Eragile-taldeak

Prozesua hiru eragile-talderekin osatu da.

- **Udala (KOO):** Koordinazio Taldearen bitartez.
- **Teknikariak (TEK):** elkarrizketen eta bileren bidez.
- **Herritarrek (HER):** auzoetako ordezkariekin bilerak.

Eragile-taldeekin egindako lanketak, urratsez-urrats

Diagnostikoa

KOO

Arduradun politikoekin (baita hirigintza-arloko arduradunen batekin ere) IUPIaren helburuak ezarri dira, besteak beste, honako gai hauek jorratu direlarik:

- Irisgarritasunaren diagnostikoa, bai udalerrarena, bai udalarena (zerbitzuak, komunikazioa...).
- Planarekin zerikusia izan dezaketen proiektuak, abian daudenak edo hasi nahi direnak, bai epe laburrera, bai epe ertainera.
- Herritarrek parte hartzeko prozesuaren diseinua eta komunikazioa, arlo horretako teknikari arduradunarekin batera.
- Herritarrek parte hartzeko prozesuaren kronograma ezartzea.

TEK

Irisgarritasuna hobetzeko aukerak hautemateko, udaleko teknikariekin elkarrizketak egin dira, hainbat alderdiri buruzko informazioa delarik, hala nola:

- Informazioa eskuratzeko erraztasuna.
- Izapideen irisgarritasun-maila.
- Esparruaren eta zerbitzuen irisgarritasun- eta eskuragarritasun-mailak (ordutegizkoa, geografikoa, ekonomikoa, araudizkoa...).
- Eremuaren ardurapeko eraikin eta espazioen irisgarritasun-maila.
- Irisgarritasunaren arloko esperientziak, negatiboak zein positiboak.

HER

- Hainbat kolektiborekin elkarrizketak egin dira.
- Herritarrekin lanketa-saio irekia egin da

Proposamenak egitea eta jarduketak zehaztu eta lehenestea.

KOO

Diagnostiko-fasean lortutako informazioarekin, esku-hartzeak proposatzea. Jarduketak lehenestea, horietan esku hartuko duten faktoreak kontuan hartuta.

TEK

Diagnostiko-fasean lortutako informazioarekin, esku-hartzeak proposatzea. Jarduketak lehenestea, horietan esku hartuko duten faktoreak kontuan hartuta.

HER

Landutako proposamenak lehenestea eta horiei ekarpenak egitea.

HER

Auzoetako ordezkariekin lehenespen-ariketa egin da.

Parte-hartze prozesuari buruzko informazio guztia **Parte-hartze memoria Eranskinean** jaso da.

1.4. IUPIaren edukiak eta antolaketa

IUPIa osatzen duten dokumentuak eta edukiak:

- I. IUPI: Memoria.
- II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerrri irisgarria.
- III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irisgarria.
- IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
- V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.

Edukien antolaketari dagokionez, zenbait ohar:

- **Jarduketa-Plana bi eranskinetan bereizi da.** Bata “Udalerrri irisgarria” izeneko jarduketa-eremu nagusiari dagokio (nolabait esateko, lehengo Irisgarritasun Planek hartzen zituzten jarduketa-eremuak hartzen dituen), eta bestea “Udal Irisgarria” izeneko jarduketa-eremu nagusiari, IUEEtik eratorritako ikuskera integralari jarraituz.
- **Jarduketa-Plana fitxatan antolatu da.** Eraginkortasuna helburu, fitxa horietan bateratu da jarduketa bakoitzari lotutako informazio guztia. Horrekin lortu nahi izan da, besteak beste, informaziorik ez galtzea, jarduketa integralak sustatzea edo eta kontraesanak zein akatsak saihestea. Soilik informazioa errepikatuko dela aurreikusi den kasuetan “atera” dira edukiak fitxatetik: hori izan da, hain zuzen, “Udalerrri irisgarria” jarduketa-eremu nagusiko jarduketekin jarraitu den bidea, bakoitzari dagozkion araudia, irizpideak eta gomendioak fitxa espezifikoetan antolatu direlarik, esparru edo gaien arabera.
- **Araudia, irizpideak eta gomendioak fitxatan antolatu dira.** Fitxa horiek esparru zehatzen edo gaien inguruan antolatu dira, bertan bateratu direlarik horietako bakoitzari buruzko araudia, irizpideak zein gomendioak. Azken horien artean daude gomendatutako hainbat dokumentu, doakoak eta sarean eskuragarri daudenak.
- **Fitxak elkarren artean lotuta daude.** Jarduketa-Planeko fitxa bakoitzak dakarren “Jarduketarako irizpideak” ataletik jotzen da dagokion “Araudia, irizpideak eta gomendioak” eranskineko fitxatara.

Jarduketa zehatz bati dagokion fitxaren antolaketa:

- Jarduketari dagozkion ardatza eta helburua.
- Lehentasun-maila.
- Irismena.
- Egungo egoera.
- Azalpena.
- Kronograma.
- Udaleko arduradunak. Beste eragileak.
- Esleipenak eta kanpo-baliabideak.
- Ebaluazio eta jarraipen adierazleak.
- Jarduketarako irizpideak.

Esparru edo gai zehatz baten “Araudia, irizpideak eta gomendioak” fitxaren antolaketa:

- Esparruari edo gaiari dagozkion eremua eta azpieremua.
- Araudia.
- Araudiak ezartzen dituen baldintza erabakiorrenak.
- Irizpideak eta gomendioak.
- Gomendatutako dokumentazioa.
- Irudiak.

2. Proposamen estrategikoa

2.1. Ikuspegia eta xedea

Ikuspegiak eta xedek funtzio desberdinak baina osagarriak betetzen dituzte.

- Ikuspegiak nahi den etorkizuneko irudia adierazten du, Plan hau eta hurrengoak epe luzera gidatu eta bideratzen dituen.
- Xedek edo misioak, bestalde, Planaren helburu zehatza definitzen du: zein den bere izateko arrazoia, zer lortu nahi duen, zer baliabide izango dituen, zer ekintza egingo dituen...

Laburbilduz: ikuspegiak inspiratzen eta proiektatzen duen bitartean, xedek zehaztu eta egituratu egiten du.

IUPIaren ikuspegia da irisgarritasun unibertsala zeharka integratuko dela Udalean, horretarako egiturak, prozedurak eta tresnak sortuz, politikak, inbertsioak eta ekintzak eragingo dituztenak, herritarren eskura jartzen dituen ingurune, baliabide eta zerbitzu guztietan sistematikoki ezartzeko, eremu guztietan.

IUPIaren xedea da datozen lau urteetan jardura koherente eta ebaluagarrien multzo bat identifikatzea, planifikatzea eta gauzatzea, irisgarritasun unibertsala modu progresibo eta eraginkorrean hobetzeko, udalerrri osoan zein Udalean bertan.

2.2. Printzipio estrategikoak eta zeharkako gaiak

2.2.1. Printzipio estrategikoak

Printzipio estrategikoak Zestoako Irisgarritasun Estrategia inspiratzen duten ideiak, balioak edo funtsezko arrazoiak dira, eta IUPIa diseinatzeko eta idazteko oinarri gisa hartu dira. Proposamena honako erreferentzia hauen printzipio gidarietan oinarritzen da:

- **DPEK:** Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa (Nazio Batuak, 2006).
- **1/2013-ELD:** Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorra (Espainiako Gobernua, 2013).
- **IUEE:** Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia (ISEK, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua; Eusko Jaurlaritzak, 2020).

Hurrengo taulan adierazi da IUPIaren printzipioen lotura Udalaren estrategiekin —gehienak zeharkakoak—, eta IUPIarekin duten harremanagatik kontuan hartu direnak.

IUPIaren printzipio estrategikoak eta erreferentzia-esparruaren printzipioekin duten lotura

Zestoako IUPI	DPEK (2006)	1/2013-ELD	EIUE (2020)
Duintasuna, autonomia, desberdintasuna eta nortasuna errespetatzea.	Pertsonen berezko duintasuna, norbanakoaren autonomia —norberaren erabakiak hartzeko askatasuna barne— eta independentzia errespetatzea.		
	Desgaitasunen bat duten haurren gaitasunen bilakaera eta beren nortasunari eusteko duten eskubidea errespetatzea.	Desgaitasunen bat duten pertsonen nortasunaren garapena errespetatzea, eta, bereziki, desgaitasuna duten haurrena, haien nortasunari eusteko eskubidea barne.	
	Desberdintasuna errespetatzea eta desgaitasuna duten pertsonak onartzea, aniztasunaren eta giza-izaeraren parte diren aldetik.		
Bereizkeriarik eza, ikuspegi intersektionalarekin.	Bereizkeriarik eza.		
	Gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna.	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.	
Bizitza independenteak eta interdependenteak.		Bizimodu independentea.	
Parte-hartzea, gizarteratzea eta normalizazioa.	Gizarteratze eta parte-hartze erabatekoa eta eraginkorra.		Gizarteratzea eta normalizazioa.
		Normalizazioa.	
Irisgarritasun eta diseinu unibertsalak.	Irisgarritasuna.	Irisgarritasun unibertsala.	Pertsona guztientzako diseinua.
		Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua.	
Aukera-berdintasuna eta ekintza positiboa.	Aukera-berdintasuna.		

DPEK: Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa (Nazio Batuak, 2006).
1/2013-ELD: Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorra (Espainiako Gobernua, 2013). **IUEE:** Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia (ISEK, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua; Eusko Jaurlaritza, 2020).

Printzipio estrategikoen azalpena, gehienak indarrean dauden araudiak adierazten dituen bezala jasoak:

Duintasuna, autonomia, desberdintasuna eta nortasuna errespetatzea. Formula bakar batean jaso dira DPEKn eta RDL-1/2013an agertzen diren hainbat funtsezko printzipio, guztiak errespetuan oinarrituta daudenak:

- “Pertsonen berezko duintasuna, norbanakoaren autonomia —norberaren erabakiak hartzeko askatasuna barne— eta independentzia errespetatzea” (DPEK, 1/2013-ELD).
- “Desgaitasunen bat duten haurren gaitasunen bilakaera eta beren nortasunari eusteko duten eskubidea errespetatzea” (DPEK).
- “Desgaitasunen bat duten pertsonen nortasunaren garapena errespetatzea, eta, bereziki, desgaitasuna duten haurrena, haien nortasunari eusteko eskubidea barne” (1/2013-ELD).
- “Desberdintasuna errespetatzea eta desgaitasuna duten pertsonak onartzea, aniztasunaren eta giza-izaeraren parte diren aldetik” (DPEK, 1/2013-ELD).

Hain zuzen ere, printzipio horien funtsezko izaerak azalduko luke IUEEan ez agertzea, honen planteamendua estrategikoagoa baita.

Bereizkeriarik eza, ikuspegi intersektionalarekin. Formulazio honen bidez, ikusarazi nahi izan da desgaitasuna duen pertsona batek jasaten duen bereizkeria larriagotu egin daitekeela egoera hori beste nortasun- edo desberdintasun-faktore batzuekin konbinatzen denean.

- “Zuzeneko bereizkeria: desgaitasuna duen pertsona batek antzeko egoeran dagoen beste pertsona batek baino tratatu txarragoa jasotzen duenean, bere desgaitasunaga dela eta” (1/2013-ELD).
- “Zeharkako bereizkeria: legezko edo erregelamenduzko xedapen batek, hitzarmenezko edo kontratuzko klausula batek, banakako itun batek, alde bakarreko erabaki batek edo irizpide edo praktika batek, edo ingurune, produktu edo zerbitzu batek, itxuraz neutroak direnak, desabantaila berezi bat eragin diezaioketenean pertsona bati beste pertsona batzuekiko, desgaitasuna dela eta, baldin eta objektiboki helburu legítimo bati erantzuten ez badiote eta helburu hori lortzeko bitartekoak egokiak eta beharrezkoak ez badira” (1/2013-ELD).
- “Elkartzeagatiko bereizkeria: pertsona edo talde batek diskriminazio-tratua jasotzen duenean, desgaitasuna dela eta beste pertsona batekin duen harremanagatik” (1/2013-ELD).
- Ikuspegi intersektionalak hainbat identitate- eta desberdintasun-faktorek —hala nola desgaitasunak, generoak, klase sozialak, adinak, sexu-orientazioak edo etniak, besteak beste— elkarren artean nola eragiten duten eta nola konbinatzen diren aztertzen eta azaltzen du, bereizkeria- eta bazterkeria-modu espezifikoak eta larriagoak sortuz. Ikuspegi horrek ez ditu soilik diskriminazio-geruzak gehitzen; aitzitik, kategorio horien elkarrekintzak zapalkuntza-esperientzia bakarrak eta konplexuagoak sortzen dituela onartzen du, modu isolatuan ulertu edo jorratu ezin direnak.

Bizitza independenteak eta interdependenteak. Formulazio honen bidez, autonomiaren ideia erabateko autosufizientziaren idealarekin lotzea saihestu nahi da, pertsona guztiek bizitza autonomia izateko beste batzuren beharra dutela azpimarratuz.

- “Bizitza independentea: desgaitasuna duen pertsona batek bere bizitzari buruzko erabakiak hartzeko boterea duenean eta bere komunitateko bizitzan aktiboki parte hartzen duenean gertatzen den egoera da, nortasunaren garapen aserako eskubidearen arabera” (1/2013-ELD).
- Interdependetia: bizitza autonomo eta betea garatzeko, pertsona guztiek —desgaitasuna dutenak barne— zainketak, laguntzak eta beste pertsona batzuekiko harremanak behar dituztela aitortzea da, une eta maila desberdinetan. Interdependetia giza-bizitzaren berezko baldintza gisa ulertzeak erabateko autosufizientziaren ideal liberala gaingiditzen lagundu beharko luke. Gabezia hori irisgarritasunaren arloko araudian ere antzeman daiteke. Esaterako, espazioen gutxieneko neurriak ezartzen direnean, gurgil-aulkia erabiltzen duen pertsona autonomo bat hartzen da erreferentzia

gisa arau gehienetan. Aldiz, bada beste subjektu bat, aurrekoa bezain ohikoa edo ohikoagoa izan arren, arauetan esplizituki aintzat hartzen ez dena: desgaitasuna duen pertsona bat, zaintzaile baten laguntza behar duena. Adibide honetan, interdependentzia eta zaintzak araudian txertatzeak erreferentziatzeko subjektua zabaltzea ekarriko luke: izan ere, "bigarren gorputz" baten presentzia eta ekintzak ere kontuan hartuko balira, espazioen gutxieneko dimentsioak berrikusi beharko lirateke, eta arauak ezartzen dituztenak osatu.

Parte-hartzea, gizarteratzea eta normalizazioa.

- Parte-hartzea: printzipio horren arabera, desgaitasuna duten pertsonak, banaka zein taldean, modu aktiboan parte hartzen dute erabakiak hartzeko prozesuetan, baita haiei eragiten dieten politiken, programen, baliabideen eta zerbitzuen diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan ere, haien iritzia entzungo dela eta kontuan hartuko dela bermatuz, gainerako pertsonen baldintza beretan.
- "Gizarteratzea: printzipio honen bidez, gizarteak guztion onerako eta gizarte-kohesiorako balio partekatuak sustatzen ditu, eta aukera ematen die desgaitasunen bat duten pertsona guztiei bizitza politiko, ekonomiko, sozial, hezkuntzako, laneko eta kulturean bete-betean parte hartzeko eta gainerako bizi-baldintza berdinak izateko beharrezkoak diren aukerak eta baliabideak izan ditzaten" (1/2013-ELD).
- "Normalizazioa: printzipio honen arabera, desgaitasunen bat duten pertsonak aukera izan behar dute berdintasun-baldintzetan bizitzeko, beste edozeinen eskura dauden leku, eremu, baliabide eta zerbitzu berberetara iritsiz" (1/2013-ELD).

Irisgarritasun eta diseinu unibertsalak.

- "Irisgarritasun unibertsala: inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak eta zerbitzuak, bai eta objektuak, tresnak, bitartekoak eta gailuak ere, bete behar duten baldintza da, pertsona ororentzat segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomo eta naturalenean ulergarriak, erabilgarriak eta praktikagarriak izan daitezen. Irisgarritasun unibertsalean irisgarritasun kognitiboa sartzen da, pertsona guztiek erraz ulertzeko, komunikatzeko eta elkarerragiteko aukera izan dezaten. Irisgarritasun kognitiboa irakurketa errazaren, komunikazio-sistema handigarrien eta alternatiboen, piktogramen eta horretarako eskuragarri dauden beste giza baliabide eta baliabide teknologiko batzuen bidez garatzen eta gauzatzen da. «Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua» estrategia aldeztu aurretik hartzea eskatzen du, eta hartu beharreko arrazoizko doikuntzei kalterik egin gabe ulertzen da". (1/2013-ELD).
- "Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua: jardunbide honen bitartez, inguruneak, prozesuak, baliabideak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, bitartekoak, programak, gailuak edo tresnak ahal den neurrian hasiera-hasieratik pentsatzen edo proiektatzen dira, ahalik eta hedadurarik handienean, ez egokitzapenik ez eta diseinu espezializaturik behar izan gabe, pertsona guztiek erabili ahal izateko. «Diseinu unibertsalak edo pertsona guztientzako diseinuak» ez ditu kanpoan utziko desgaitasuna duten pertsonen taldeentzako laguntza-produktuak, hala behar dutenean." (1/2013-ELD).

Aukera-berdintasuna eta ekintza positiboa. 1/2013-ELDn "Aukera-berdintasuna" printzipioa definitzen duen paragrafoan sartzen da "ekintza positiboa". IUPIann nahiago izan da ikusgarritasun handiagoa ematea eta bi ikuspegi horiek, desberdinak eta osagarriak, biltzen dituen printzipio bat proposatzea.

- "Aukera-berdintasuna: desgaitasuna dela-eta zuzeneko edo zeharkako bereizkeriarik ez jasatea da. Desgaitasunen bat duten pertsonak esparru politikoan, ekonomikoan, sozialean, lanekoan, kulturean, zibilean edo bestelakoetan giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak baldintza beretan aitortzea, gozatzea edo egikaritzea oztopatzeko edo ondorioz gabe uzteko helburua edo eragina duen edozein desberdinkeria, bazterkeria edo murrizketa barne hartuta. Era berean, ekintza positiboko neurriak hartzea ere bada aukera-berdintasuna" (1/2013-ELD).
- "Ekintza positiboko neurriak: desgaitasunaren ondoriozko desabantailak saihestea edo konpentsatzea helburu duten neurri espezifikoak dira. Jarduera horien helburuak dira desgaitasuna

duten pertsonen egitatezko berdintasuna, bai eta bizitza politiko, ekonomiko, sozial, hezkuntza-, lan- eta kultura-arloko parte-hartze osoa bizkortzea edo lortzea, desgaitasun-mota eta -maila desberdinak kontuan hartuz” (1/2013-ELD).

2.2.2. Zeharkako gaiak

Jarraian, IUPIarekin lotura duten udal-estragiek IUPIaren printzipio estrategikoekin duten harremana aztertu da. Zeharkako ildo hauek **agintaldirako prestatutako plan estrategikoaren oinarri dira** eta herritarrei aurkeztu zitzaizkien 2024ko azaroan.

4 lerro estrategikoak:

1. **“Herri bizia”**. Elkarren arteko loturak ehundu eta sinergiak handitu, jarduera ekonomikoak babestuz, kultura jarduera parte-hartzaileak sustatuz, euskararen erabileran pausoak emateko politikak aktibatuz, hezkuntza-komunitatea artikulatuz eta kirol eta jarduera osasungarriak bultzatuz.
2. **“Guztion herria”**. Pertsonak erdigunean jarri, duintasuna eta berdintasuna bermatuko duten politika publikoak aurrera eramanez, pertsonen aniztasuna kontuan hartuz eta bizitzako etapa ezberdinetako beharretan arreta jarritz.
3. **“Herri irisgarria”**. Herritarren mugikortasun baldintzak hobetu eta pertsona guztiendako espazio atseginak sortu.
4. **“Herri jasangarri eta osasungarria”**, bizi-ohitura jasangarriak sustatu, ingurune naturalak eraberrituz eta energia kontsumoa murriztuz.

IUPIaren printzipio estrategikoak eta Udalaren zeharkako estrategiekin duten lotura

IUPIaren printzipio estrategikoak				
Duintasuna, autonomia, desberdintasuna eta nortasuna errespetatzea.	X	X	X	X
Bereizkeriarik eza, ikuspegi intersektionalarekin.	x	X	x	X
Bizitza independenteak eta interdependenteak.	x	X	x	x
Parte-hartzea, gizarteratzea eta normalizazioa.		X	x	X
Irisgarritasun eta diseinu unibertsalak.	x	X	X	x
Aukera-berdintasuna eta ekintza positiboa.	x	X	x	x
Udalaren zeharkako estrategiak				
“Herri bizia”				
“Guztion herria”.				
“Herri irisgarria”.				
“Herri jasangarri eta osasungarria”.				

2.2.3. Interseksionalitatea

Interseksionalitatearen kontzeptuak azaltzen du diskriminazio- eta desabantaila-egoerak ez direla soilik ardatz bakarraren (adibidez, desgaitasunaren) ondorio, baizik eta pertsona baten identitatea gurutzatzen duten faktore ezberdinen arteko elkarreraginaren ondorio direla (sexua, adina, maila sozioekonomikoa, jatorria...). Elkargune horretan, desabantaila-faktoreak elkar indartzen dira, eta eragin bikoitza edo hirukoitza sor dezakete edozein une zein inguruetan. Desabantaila-faktore horiek modu isolatuan jorratu beharrean, IUPIak faktore horien arteko harreman konplexua hartu behar du kontuan, erantzun eraginkorrak eta unibertsalagoak emateko. Ikus, gorago, “Printzipio estrategikoak eta zeharkako gaiak” atala.

Irisgarritasunaren esparruan, ikuspegi interseksionalak aukera ematen du ulertzeko pertsona batek desgaitasun fisiko, sentorial edo kognitibo bat izateaz gain, beste faktore batzuek ere —adibidez, maila sozioekonomikoari edo hizkuntzari dagozkionak— bere eguneroko irisgarritasun-esperientzia baldintza dezaketela. Horregatik, irisgarritasun unibertsala ez da soilik azpiegitura fisikoetara mugatzen, gizartean parte hartzeko baldintza anitzen arteko gurutzaketa kontuan hartzen duen ikuspegi integrala eskatzen duelarik.



*Desberdinkeria-ardatzak lurralde- eta hiri-plangintzan.
Iturria: Projekta Urbes, 2017 (Osasunaren Mundu Erakundea, 2018-tik egokitua).*

IUPIak ikuspegi interseksional hori txertatzen saiatu da bere analisi, diagnostiko eta proposamen guztietan. Planak esku-hartze proposamenak definitzerakoan diskriminazio-faktore anizkoitzak hartu ditu kontuan:

- **Maila sozioekonomikoa**, baliabide gutxiko pertsonen sarbide mugatuagoa dutelako baliabideetara
- **Sexua/generoa**, desgaitasunen bat duten pertsonen bi heren emakumea delako, segurtasunari zein mugikortasunari dagokionez ez baita gauza bera gizona ala emakumea izatea, edo eta zaintza-lanek irisgarritasunaren inguruko zailtasunak gehitzen dituelako. Ikus gorago “Desgaitasuna eta mendekotasuna genero-ikuspegitik” atala.
- **Adina**, adin-talde desberdinek behar desberdinak dituztelako, txikienek ez dituztelako eskura bere neurrira egindako inguruneak (adultismoa), autonomia pertsonalaren definizioan pertsona helduaren gaitasunak jarri direlako eredu gisa (gaitasun fisikoak, sentorialak, kognitiboak, sozialak, digitalak...), edo eta desgaitasunak oso harreman zuzena duelako adinean gora egitearekin.

- **Jatorria/kultura**, hizkuntza- eta ohitura-aniztasunetik zailtasunak erator daitezkelako, arrazismoa egiturazko arazoa delako gizartearen, edo eta migrazio prozesuen kudeaketak oztopo gehigarriak jartzen dituelako, lehengoaz gain.
- **Herrigunearekiko urruntasuna**, landa eremuetan bizi direnek sarbide mugatuagoa dutelako baliabideetara, kostu altuagoa ordaindu behar izaten dutelarik (denboran zein dirutan neurtuta).
- Era berean, **hizkuntzaren dimentsioa** ere kontuan hartu da. Batetik, euskaraz eta gaztelaniaz ez dakiten herritarren informazio-irisgarritasuna ziurtatuz, eta, bestetik, Udalaren komunikazio-hizkuntza lehenetsia euskara izanik, hizkuntza-gaitasun mugatuak dituzten pertsonetikiko ulergarritasuna eta inklusibitatea bermatuz.



2.3. Printzipio operatiboak

Printzipio operatiboek Aretxabaletako Irisgarritasun Planaren balioak eta helburuak praktikan nola aplikatuko diren definitzen dute. Printzipio horiek Planaren garapena, gauzatzea eta ebaluazioa orientatzen dituzte, eta jarduerak koherentzia-, zorrotasun tekniko- eta etengabeko hobekuntza-irizpideekin gauzatzen direla bermatzen dute. Printzipio horiek gidatzen dituzte bai erabakiak hartzea, bai prozesuaren kudeaketa, Plana tresna eraginkor, dinamiko eta udalerriaren konpromiso estrategikoekin lerrokatua izango dela ziurtatuz.

IUPIaren printzipio operatiboak eta erreferentzia-esparruaren printzipioekin duten lotura

Aretxabaletako IUPI	DPEK (2006)	1/2013-ELD	EIUE (2020)
Zeharkakotasuna eta espezifikotasuna.		Desgaitasunaren arloko politiken zeharkakotasuna.	Zeharkakotasuna.
Gobernantza partekatua eta elkarrikereta zibila.		Elkarrikereta zibila.	Elkarrikereta zibila.
Egokitasuna.			Eragile guztien inplikazioa.
Aldaketara bideratzea.			
Gardentasuna eta ebaluazioa.			
Inklusioa prozesu gisa.			

DPEK: Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa (Nazio Batuak, 2006).
1/2013-ELD: Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorra (Espainiako Gobernuak, 2013). **IUEE:** Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia (ISEK, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua; Eusko Jurlaritzak, 2020).

Printzipio operatiboen azalpena:

Zeharkakotasuna eta espezifikotasuna. El 1/2013-ELD legeak “zeharkakotasuna definitzen duenean, “espezifikotasuna” sartzen du formulazio berean. IUPIan ikusgarritasun handiagoa eman nahi izan zaio printzipio horri, ekiteko beste bide bat osatzen duelako, lehenengoaren osagarri.

- “Desgaitasunaren arloko politiken zeharkakotasuna”. Udalaren irisgarritasun-jardunbidea ez da mugatuko soilik desgaitasuna duten pertsonentzat espresuki pentsatutako plan, programa eta ekintza espezifikotara. Horren orde, jardunbide publikoaren edozein esparrutako izaera orokorreko politika eta ekintza-ildoak ere hartuko dituzte barne, eta horietan kontuan hartuko dira desgaitasuna duten pertsonen beharrak eta eskaerak (1/2013-ELD legetik egokitua). Osasunaren esparruan, printzipio horri “Osasuna politika eta jarduera guztietan” deitu ohi zaio.
- “Desgaitasunaren arloko politiken espezifikotasuna”. Udalaren irisgarritasun-jardunbideak, desgaitasuna duten pertsonentzat espresuki pentsatutako plan, programa eta ekintza espezifikoak hartuko ditu bere barne, besteak beste ikusgarritasuna emango duten neurriak txertatuz.

Gobernantza partekatua eta elkarrizketa zibila.

- “Hala ere, lortutako aurrerapenak gorabehera, beharrezkoa da lanean jarraitzea eredu hori gauzatzeko ardura duten pertsona eta eragile guztien konpromiso eraginkorrak eta inplikazioa lortzeko, eta egunerokoan printzipioen maila eta asmo-adierazpenak zehaztea: desgaitasuna duten pertsonak, haien familiak, elkarte-mugimendua, administrazio publikoak eskumen-eremu eta lurralde-maila guztietan, gizarte-eragileak, enpresa-sarea, arreta-sistema guztietako profesionalak eremu guztietan (gizarte-zerbitzuak, osasuna, enplegua, hezkuntza...) eta euskal gizartea oro har” (Desgaitasunaren Liburu Zuria Euskadin, 2013).
- “Elkarrizketa zibila: printzipio horren bidez, desgaitasunen bat duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartzen dute, legeek eta gainerako arau-xedapenek ezartzen duten moduan, desgaitasunen bat duten pertsonen esparruan garatzen diren politika ofizialak egiten, gauzatzen, jarraipena egiten eta ebaluatzen. Politika ofizial horiek bermatuko dute, nolana ere, desgaitasunen bat duten haurrek beren iritzia askatasunez adierazteko duten eskubidea, eta beren desgaitasunaren eta adinaren arabera laguntza egokia jasotzeko eskubidea, eskubide hori gauzatu ahal izateko” (1/2013-ELD).

Egokitasuna. IUPItik eratorritako jarduketek zuzendu nahi diren irisgarritasun-arazoen garrantzia hartuko dute kontuan, proportzionaltasun-, efizientzia- eta iraunkortasun-irizpideen arabera justifikatu beharko direlarik (2011ko Osasun Publikoaren Lege Orokorretik egokituta).

Aldaketara bideratzea. Irisgarritasuna hobetuko duten neurri egokiak ezartzeko baldintza eraginkorrak sortzea, IUPIaren idazketa-prozesutik hasita.

Gardentasuna eta ebaluazioa. IUPIa bera eskuragarria izango da, eta jasotzen duen informazioak, bai eta bere barne dituen jardueren inguruan sortzen denak, argia, erraza eta ulergarria izan beharko du herritar guztientzat. Gainera, IUPIaren garapena eta emaitzak ebaluatu beharko dira, ezarritako ekintzen izaerari egokitutako aldizkakotasunarekin.

Inklusioa prozesu gisa. Inklusioa prozesu amaigabe eta bizi gisa ulertu behar da, ezagutza, testuinguru eta arau-esparru berriak integratzeko gai izango dena. IUPIa prozesu horretan emango den urrats bat hehiago gisa ulertu behar da, eta, beraz, hura amaitzeak ez du konpromisoaren amaiera ekarriko, baizik eta etorkizuneko diagnostiko- eta esku-hartze-faseetarako oinarria, irisgarritasunaren etengabeko hobekuntza ziurtatuz.

2.4. Jarduketa-eremuak

Eusko Jaurlaritzak sustatu dituen Irigarritasun Unibertsalerako Plan Integralen berrikuntzarik nabarmenena da esplizituki adierazi dela ingurune fisikoaz haratago iritsi beharko dela:

- *“Irisgarria diogunean ez gara ari hiri-espazioei, eraikin publikoei, lantokiei eta etxebizitzei buruz bakarrik; horiez gain, komunikazio digitalaren horizonte berriak irekitzen dituzten ingurune ez-fisikoak eta herritarren eskubide guztiak ere hartzen ditugu kontuan.”* (Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia, 2020).
- *“IUPIen azterketa- eta esku-hartzearen eremuak barne hartuko ditu planaren sustatzailearen mendeko arlo, sail edo bestelako erakundeetan dauden eta/edo aurreikusita dauden ingurune fisikoa, zerbitzu publikoak eta informazio- eta komunikazio-kanalak.”* (IUPIen bidez Irigarritasun Unibertsaleko Estrategia ezartzeko toki-erakundeentzako dirulaguntzak, 2023).

Araudiak Irigarritasun Unibertsalari ematen dion definizioarekin lerrokatzen da begirada integral hori: *“Inguruneek, prozesuek, baliabideek, produktuek eta zerbitzuek, bai eta objektuek, bitartekoek, tresnek eta gailuek ere, bete behar duten baldintza da, pertsona guztiek segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomo eta naturalenean ulergarriak, erabilgarriak eta praktikagarriak izateko.”*

Planen integritasun-eskakizun horri erantzunez, IUPI honek bi jarduketa-eremu nagusi ditu:

- **Udalerri irisgarria.** Orohar, jarduketa-eremu hau udalerriko ingurune fisikoari dagokio, eta nolabait esateko, aurreko Irigarritasun Planek hartzen zituzten esparruak hartzen ditu.
- **Udal irisgarria.** Orohar, jarduketa-eremu hau Udalaren jardunbideari dagokio. Aurreko Irigarritasun Plan gehienek ia ukitzen ez zituzten esparruak hartzen ditu, eta horien inguruan Udalean —euskal erakunde gehienetan bezala— ezagutza eta esperientzia mugatua denez, IUPI honen idazketa-prozesuan erronka garrantzitsua izan da bere lanketa.

**Udalerri
irisgarria**

**Udal
irisgarria**

Aretxabaletako IUPIaren bi jarduketa-eremu nagusiak.

2.5. Ardatzak eta jarduketa-esparruak

Atal honetan IUPIaren jarduketen antolaketa egituratzen duten ardatzak eta helburuak adierazi dira. Gorago adierazi bezala, bi jarduketa-eremu nagusitan banatu da IUPIa, horietako bakoitzari dagokion Jarduketa-Plan xehetua eranskin banatan zehaztu delarik: ikus “Jarduketa-Plana: Udalerrir irugarria” eta “Jarduketa-Plana: Udalerrir irugarria” eranskinak.

A. Udalerrir irugarria	
Ardatzak	Helburuak
1. Hiri-ingurunea.	1.1. Ibilbide, espaloir eta plataforma bakarrak irugarriagoak eta seguruagoak egitea. 1.2. Ibilbide-sarea zebrabide eta oinezkoentzako bidegurutze irugarri eta seguruekin osatzea. 1.3. Ibilbide-sarea arrapala irugarri eta eskailera seguruekin osatzea. 1.4. Ibilbide irugarrien sarea igogailuekin osatzea. 1.5. Bidegorriak eta bizikletazko mugikortasuna irugarriagoak eta seguruagoak egitea. 1.6. Plazak eta espazio publikoak irugarriagoak egitea. 1.7. Parkeak eta ingurune naturalak irugarriagoak eta inklusiboagoak egitea. 1.8. Hiri-ekipamendua irugarriagoa egitea.
2. Garraioa.	2.1. Garraio-azpiegitura irugarriagoa egitea.
3. Eraikin publikoak.	3.1. Udal-eraikinak irugarriagoak egitea.
4. Espazio eta jarduera pribatuak.	4.1. Espazio eta jarduera pribatuen irugarritasuna hobetzeko laguntzak diseinatzea eta gauzatzea.

“Udalerrir irugarria” jarduketa-eremu nagusia osatzen duten ardatz edo esparruak, eta horien inguruko helburuak.

B. Udal irisgarria	
Ardatzak	Helburuak
5. Formakuntza eta kontzientziaketa.	5.1. Udal-eragileen irisgarritasun unibertsalaren arloko ezagutza hobetzea eta irisgarritasunaren kulturaren aurrera egitea.
6. Informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea.	6.1. Komunikazioen ulergarritasuna hobetzea, herritarren informazioarako eskubidea bermatzeko. 6.2. Hizkuntzen erabilera irisgarriagoa egitea. 6.3. Esparru digitalaren irisgarritasuna hobetzea. 6.4. Udalaren gardentasuna areagotzea eta herritarren parte-hartzean irisgarritasuna txertatzea. 6.5. Informazioarako eta seinaleztapenerako errotulazioaren irisgarritasuna hobetzea.
7. Arreta eta izapideak.	7.1. Arreta eta izapide irisgarriagoak eskaintzea.
8. Aisialdia, ongizatea eta garapena.	8.1. Udal-zerbitzu eta baliabide eskaintza irisgarriagoak eta inklusiboagoak bermatzea. 8.2. Festak eta ekitaldiak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea.
9. Arau-esparrua.	9.1. Ordenantzetan irisgarritasun irizpideak txertatzea. 9.2. Irisgarritasun ekonomikoa hobetzea.
10. IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa.	10.1. Plana gauzatzea errazteko baldintzak ezartzea. 10.2. Plana komunikatzea eta sozializatzea.

“Udal irisgarria” jarduketa-eremu nagusia osatzen duten ardatz edo esparruak, eta horien inguruko helburuak.

3. Irismena eta diagnostikoa

3.1. Irismena, denboran

“Era berean, irisgarritasuna bermatzeko eta sustatzeko lehendik dauden hiri-inguruneetan, espazio publikoetan, eraikinetan, garraiobideetan eta informazio- eta komunikazio-sistemetan –titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikokoak–, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta gainerako erakunde publikoek lau urteko programak egin beharko dituzte irisgarritasuna sustatzeko, guztia ere elementu horiek guztiak poliki-poliki aurreikusitako irisgarritasun-baldintzetara egokitzen joateko.”
(Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia, 2020).

IUEEri jarraituz, IUPI honen irismena lau urtekoa da, **2026-2029 bitarteko indarraldia** ezarri delarik. Hau hala izanik, 2030-2033 laurtekoa ere hartu da kontuan Plan honetan. Epe horretan kokatu dira, besteak beste, lehenespen-ariketan bigarren mailan geratu diren jarduketak, finantzaketarako aukera zailak dituztenak, aurretik egin beharreko lanengatik edo hiri-plangintzako epeak direla-eta lehenago gauzatu ezin direnak, eta abar.

Ikusiko denez, orokorrean zehaztasun handiagoarekin jaso dira lehen laurterako aurreikusi diren jarduketak, eta arinago bigarrenera atzeratutakoak.

3.2. Diagnostikoaren eta jarduketen irismena, esparruen arabera

Udalak IUPIan sartzea aurreikusi ez dituen esparru eta elementuetan diagnostiko orokorrak egin dira, eta zehatzagoak, aldiz, Planean sartzea aurreikusi dituenetan.

IUPIaren idazketan zehar aurreko atalean adierazitako jarduketa-eremuak eta esparruak landu dira. Lanketa horren lehenengo pausoa izan da **esparru bakoitzean Planak izango duen irismena zehaztea**, Udalaren baliabide pertsonal zein ekonomikoak kontuan izanik IUPIa lau urteko epean egingarria izan dadin. Ariketa horrek IUPIaren idazketa-prozesuari eragin dio, besteak beste diagnostikoari, atal honetan ikusiko denez: esate baterako, Udalak IUPIan sartzea aurreikusi ez dituen esparru eta elementuetan diagnostiko orokorrak egin dira, eta zehatzagoak, aldiz, Planean sartzea aurreikusi dituenetan. Gorago “Printzipio operatiboak” atalean adierazi denez, egokitasunaren printzipioak berekin dakarren proportzi

Hurrengo orrialdeetako taulatan jaso da IUPI honen diagnostikoaren zein jarduketen irismena.

Udalerri irisgarria: Hiri-ingurunea (02)		IUPIren irismena							
Espazio publikoak		- Ez dagokio · 0 EZ · 1 Partzialki · 2 BAI							
Plazak eta antzekoak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Parkeak eta lorategiak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Naturguneetako gune urbanizatuak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Jolasguneak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Udalaren aurreikuspena datorren laurtekorako	Elementu espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko berariazko jarduketak gauzatzea.								
	Orokorrean, soilik Jarduketa-Planeko esku-hartzeetako eremuetan hobetzea/berritzea/gehitzea elementuak.								
Irismena, diagnostikoan	Udalaren aurreikuspena ikusirik, IUPIak orokorrean ontzat eman du aurreko Irisgarritasun Planean egindako diagnostikoa.								
	Udalaren aurreikuspena ikusirik, Jarduketa-Planak eskatzen duen neurrira egokitu da diagnostikoa.								
	Elementu guztien/gehien banakako diagnostiko xehatua egin da.								
Irismena, jarduketetan	Berariazko jarduketak proposatu dira elementu espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko.								
	Orokorrean, Jarduketa-Planeko esku-hartzeetako eremuetan elementu defizitarioak hobetzea/berritzea/gehitzea proposatu da.								
	“Araudia eta irizpideak” atalean elementu honi aplikatu dakizkiokeen irizpideak jaso dira.								

Udalerri irisgarria: Hiri-ingurunea (03) Hiri-ekipamendua		IUPIren irismena - Ez dagokio · 0 EZ · 1 Partzialki · 2 BAI							
Eserlekuak eta mahaiaik.		0	2	2	2	0	0	2	2
Komun publikoak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Iturriak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Jarduera fisikorako eta jolaserako elementuak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Hiri-hondakinen edukiontziak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Zakarrontziak, postontziak eta antzekoak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Mutiloiak eta antzekoak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Seinaleztapen- eta informazio-elementuak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Erakusmahaiaik eta leihatilak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Behin-behineko babes- eta seinaleztapen-elementuak.		0	2	2	2	0	0	2	2
Udalaren aurreikuspena datorren laurtekorako	Elementu espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko berariazko jarduketak gauzatzea.								
	Orokorrean, soilik Jarduketa-Planeko esku-hartzeetako eremuetan hobetzea/berritzea/gehitzea elementuak.								
Irismena, diagnostikoan	Udalaren aurreikuspena ikusirik, IUPIak orokorrean ontzat eman du aurreko Irisgarritasun Planean egindako diagnostikoa.								
	Udalaren aurreikuspena ikusirik, Jarduketa-Planak eskatzen duen neurria egokitu da diagnostikoa.								
	Elementu guztien/gehien banakako diagnostiko xehatua egin da.								
Irismena, jarduketetan	Berariazko jarduketak proposatu dira elementu espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko.								
	Orokorrean, Jarduketa-Planeko esku-hartzeetako eremuetan elementu defizitarioak hobetzea/berritzea/gehitzea proposatu da.								
	“Araudia eta irizpideak” atalean elementu honi aplikatu dakizkiokeen irizpideak jaso dira.								

Gorago “Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala” atalean aipatu den dokumentutik egokitu da hurrengo taula. Bertan nolabait sailkatu dira “Udalerri irisgarria” jarduketa-eremuko irisgarritasun-arazoak. Lerroetan arazoak motaren arabera taldekatu dira, lerro horietako bakoitzean adierazi direlarik a) arazoaren adierazpen edo kokapena, b) sakoneko kausak eta c) egiturazko konponbideak.

Irisgarritasun-arazoak hiri-ingurunean: kokapena, kausak eta konponbideak			
Arazo-mota	Adierazpena, kokapena	Kausak	Egiturazko konponbideak
Egiturazkoak	— Gehiegizko maldak. — Koskak. — Espaloi estuak.	- Hirigintza-planek ez dute kontuan hartzen irisgarritasuna. — Legediak ez du irisgarritasuna txertatzen. — Planak ez daude irisgarritasuneko araudia betetzeari lotuta. — Teknikariek ez dute irisgarritasuna kontuan hartzen.	— Araudiak koordinatzea. — Sailen arteko koordinazioa. — Teknikarien eta funtzionarioen formakuntza.
Hiri-diseinua	— Estuguneak. — Zoladura. — Gurutzaketak. — Seinaleztapena. — Altura librea.	- Urbanizazio-proiektuek, altzariek, lorategiek, obrek eta abarrek ez dute kontuan hartzen irisgarritasuna. — Hirigintza-arauek eta ordenantzek ez dute irisgarritasuna txertatzen. — Lizentziek, proiektuen onarpenak eta gauzatzeak ez dute irisgarritasuna kontuan hartzen. — Teknikariek ez dute irisgarritasuna kontuan hartzen.	— Araudiak egitea eta koordinatzea. — Proiektuak gauzatzeko koordinazioa. — Sailen arteko koordinazioa. — Teknikarien, proiektugileen eta funtzionarioen formakuntza.
Mantentze-lanak	— Zoladura. — Beheraguneak. — Zuhaitzak inautzea. — Seinaleztapena.	- Hiri-eremua mantentzeko eta kudeatzeko lanetan ez da kontuan hartzen irisgarritasuna. — Udal-ordenantzek ez dute irisgarritasuna txertatzen. — Ez da kontrolatzen ea betetzen den. — Obrako teknikariek eta langileek ez dute irisgarritasuna kontuan hartzen.	— Araudiak egitea eta koordinatzea. — Sailen arteko koordinazioa. — Teknikarien, proiektugileen eta funtzionarioen formakuntza.
Arau-hausteak	Ibilgailuek, obrek, terrazek, saltokiek, edukiontzien, toloek eta abarrek espazioak arauz kanpo okupatzea.	- Hiriaren erabilera- eta funtzionamendu-jardueretan ez da kontuan hartzen irisgarritasuna. — Udal-ordenantzek ez dute irisgarritasuna kontuan hartzen. — Ez da betetzen den kontrolatzen. — Funtzionarioek, poliziek eta herritarrek ez dute irisgarritasuna kontuan hartzen.	— Araudiak egitea eta koordinatzea. — Sailen arteko koordinazioa. — Teknikarien, proiektugileen eta funtzionarioen formakuntza.

Iturria: La accesibilidad universal en los municipios: guía para una política integral de promoción y gestión (IMSERSO, ACCEPLAN, 2006).

Udal irugarria Informazioa eta komunikazioa		IUPIren irismena - Ez dagokio · 0 EZ · 1 Partzialki · 2 BAI			
Lengoaia/hizkera.		-	1	0	2
Euskara Plana, hizkuntza-politika eta -irizpideak.		-	1	0	2
Edukien irugarritasuna: idatzizkoak, irudiak, bideoak.		-	1	0	2
Udal argitalpen inprimatuak eta digitalak.		-	1	0	2
Udal webgunea(k) eta komunikazio-kanal digitalak.		-	1	0	2
Udalak erabiltzen dituen sare-sozial digital pribatuak.		-	1	0	2
Espazio eta eraikin publikoetako seinaleztapena.		-	1	0	2
Udalaren aurreikuspena datorren laurtekorako	Alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/ gehitzeko berariazko jarduketak gauzatzea.				
Irismena, diagnostikoan	Udalaren aurreikuspena ikusirik, Jarduketa-Planak eskatzen duen neurria egokitu da diagnostikoa.				
Irismena, jarduketetan	Berariazko jarduketak proposatu dira alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko.				
	“Araudia eta irizpideak” atalean alderdi honi aplika dakizkiokeen irizpideak jaso dira.				

Udal irisgarria Gardentasuna eta parte-hartzea		IUPIren irismena - Ez dagokio · 0 EZ · 1 Partzialki · 2 BAI			
Dokumentu publikoak, eskuragarritasunaren ikuspegitik.		-	-	-	2
Herritarren ekarpenak jasotzeko prozesuak eta kanalak.		-	-	0	2
Gardentasun/Parte-hartze Ordenantza edo antzekoak.		-	-	1	2
Parte-hartze prozesuak eta ekitaldiak.		-	-	0	2
Udalaren aurreikuspena datorren laurtekorako	Alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/ gehitzeko berariazko jarduketak gauzatzea.				
Irismena, diagnostikoan	Udalaren aurreikuspena ikusirik, Jarduketa-Planak eskatzen duen neurrira egokitu da diagnostikoa.				
Irismena, jarduketetan	Berariazko jarduketak proposatu dira alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko.				
	“Araudia eta irizpideak” atalean alderdi honi aplikatu dakizkiokeen irizpideak jaso dira.				

Udal irigarria Arreta eta izapideak		IUPIren irismena - Ez dagokio · 0 EZ · 1 Partzialki · 2 BAI			
Harrerarako, arretarako eta/edo izapideetarako guneen kokapenak eta ordutegiak.		0	-	0	2
Aurrez-aurreko harrera, arreta eta izapideak.		0	-	0	2
Harrera, arreta eta izapide telematikoak.		0	-	0	2
Herritarren Arreta Zerbitzuaren Karta edo antzekoak.		0	-	0	2
Udalaren aurreikuspena datorren laurtekorako	Alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/ gehitzeko berariazko jarduketak gauzatzea.				
	Udalaren aurreikuspena ikusirik, Jarduketa-Planak eskatzen duen neurrira egokitu da diagnostikoa.				
	Berariazko jarduketak proposatu dira alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko.				
Irismena, diagnostikoa					
Irismena, jarduketetan		"Araudia eta irizpideak" atalean alderdi honi aplikatu dakizkiokeen irizpideak jaso dira.			

Udal irisgarria Aisialdia, ongizatea eta garapena		IUPIren irismena - Ez dagokio · 0 EZ · 1 Partzialki · 2 BAI			
Zerbitzuen kokapenak eta ordutegiak.		0	-	0	1
Zerbitzuen inklusio-maila: ekonomikoa, soziokulturala, etab.		0	-	0	2
Zerbitzu eta baliabide egokituak.		0	-	0	2
Festa eta ikuskizun/ekitaldi handien inklusio-maila.		0	-	0	2
Udalaren aurreikuspena datorren laurtekorako	Alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/ gehitzeko berariazko jarduketak gauzatzea.				
	Udalaren aurreikuspena ikusirik, Jarduketa-Planak eskatzen duen neurrira egokitu da diagnostikoa.				
	Berariazko jarduketak proposatu dira alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko.				
Irismena, jarduketetan		“Araudia eta irizpideak” atalean alderdi honi aplikatu dakizkiokeen irizpideak jaso dira.			

Udal irisgarria Dirulaguntzak eta arau-esparrua		IUPIren irismena - Ez dagokio · 0 EZ · 1 Partzialki · 2 BAI			
Espazio publikoaren antolamenduari lotutako ordenantzak.		-	-	-	-
Ordenantza fiskala.		0	-	1	1
Irisgarritasunari lotutako dirulaguntzak, hobariak eta salbuespenak.		0	-	1	1
Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.		0	-	1	1
Udalaren aurreikuspena datorren laurtekorako	Alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/ gehitzeko berariazko jarduketak gauzatzea.				
	Udalaren aurreikuspena ikusirik, Jarduketa-Planak eskatzen duen neurrira egokitu da diagnostikoa.				
	Berariazko jarduketak proposatu dira alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko.				
Irismena, diagnostikoan	Berariazko jarduketak proposatu dira alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko.				
	"Araudia eta irizpideak" atalean alderdi honi aplikatu dakizkiokeen irizpideak jaso dira.				
Irismena, jarduketetan					

Udal irisgarria Formakuntza eta kudeaketa		IUPIren irismena - Ez dagokio · 0 EZ · 1 Partzialki · 2 BAI			
Udal-eragileen formakuntza irisgarritasunaren arloan.		0	-	0	2
Herritarren sentsibilizaziorako kanpainak irisgarritasunaren arloan.		0	-	0	2
Plan estrategikoen kudeaketa eta komunikazioa.		0	-	0	2
Udalaren aurreikuspena datorren laurtekorako	Alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/ gehitzeko berariazko jarduketak gauzatzea. Udalaren aurreikuspena ikusirik, Jarduketa-Planak eskatzen duen neurrira egokitu da diagnostikoa. Berariazko jarduketak proposatu dira alderdi espezifikoak hobetzeko/berritzeko/gehitzeko. “Araudia eta irizpideak” atalean alderdi honi aplikatu dakizkiokeen irizpideak jaso dira.				
Irismena, diagnostikoan					
Irismena, jarduketetan					

4. Jarduketa-Plana

4.1. Ardatzak, helburuak eta jarduketak

Atal honetan Jarduketa-Planaren antolaketa jaso da. Gorago adierazi bezala, bi jarduketa-eremu nagusitan banatu da IUPIa, horietako bakoitzari dagokion Jarduketa-Plan xehetua eranskin banatan zehaztu delarik: ikus “Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria” eta “Jarduketa-Plana: Udalerri irisgarria” eranskinak.

Jarduketak egitura baten arabera kokatu dira, kasu askotan jarduketa-multzoak osatu eta fitxatan elkartu direlarik. Aipatu egitura ardatz eta helburuek osatzen dute, gorago “Ardatzak eta helburuak” atalean zehaztu direnak. Hona jarduketa-eremu bakoitza osatzen duten ardatz, helburu eta jarduketa-multzoen kopuruak:



4 Ardatz
11 Helburu
29 Jarduketa-multzo



6 Ardatz
13 Helburu
18 Jarduketa-multzo

4.1.1. Udalerrri irisgarria

Orohar, jarduketa-eremu hau udalerriko ingurune fisikoari dagokio, eta nolabait esateko, aurreko Irisgarritasun Planek hartzen zituzten esparruak hartzen ditu (ikus gorago “Jarduketa-eremuak” atala).

Ardatzak	Helburuak	Jarduketa-multzoak
1. Hiri-ingurunea	1.1. Ibilbide, espaloi eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea.	a. Durana kaleko irisgarritasuna bermatu eta segurtasuna indartu. b. Basaben oinezkoen ibilbideak eta espazioak egokitu, Santakurtz, Mitarte plaza eta Azberen inguruetan. c. Bizkaia-Aralar-Gorbeia-Zaraia auzunean oinezkoen ibilbideak eta espazioak egokitu. d. Ilargi plaza eta Gurea atzeko parkea berrurbanizatu, plataforma bakarrarekin biak elkartuz. e. Bedarretako San Migel auzunearen berrurbanizazioa. f. Adinekoen Egoitzaren eta Bedarreta auzoaren arteko ibilbidean egokitzapen-lanak egin. g. Loramendi 9 inguruan plataforma bakarra ezarri. h. Araba ibilbideko 34 bis eta 42 zenbakien aurreko espaloian egokitzapen-lanak egin. i. Belorrieta auzuneko 1-17 zenbakietan egokitzapen-lanak egin.
	1.2. Ibilbide-sarea zebrabide eta oinezkoentzako bidegurutze irisgarri eta seguruekin osatzea.	a. Txarapea Ibilbideko zebrabideak egokitu, segurtasuna hobetzeko. b. Zebrabideetan egokitzapen-lanak egin. c. ALE-Ederlaneko bidegurutzea egokitu.
	1.3. Ibilbide-sarea arrapala irisgarri eta eskailera seguruekin osatzea.	a. Eskaileretan egokitzapen-lanak egin. b. Araba Ibilbidea eta Bide Berdea lotzen dituen eskailera ordezkatu.
	1.4. Ibilbide irisgarrien sarea igogailuekin osatzea.	a. Iturizarreko igogailu-kabina jarri.
	1.5. Bidegorriak eta bizikletazko mugikortasuna irisgarriagoak eta seguruagoak egitea.	a. Basabe poligonoko bidegorria osatu. b. 1b Sektoreko urbanizazioan bidegorria eta ibilbide osasungarria txertatu. c. Bidegorri-sarean hornikuntza- eta konponketa-lanak egin.
	1.6. Plazak eta espazio publikoak irisgarriagoak egitea.	a. Laborala-Lausitta tarte oinezkotu, Larrin plazarekin elkartuz.
	1.7. Parkeak eta ingurune naturalak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea.	a. Urkuluko bidean eta itzulian egokitzapen-lanak egin.

	1.8. Hiri-ekipamendua irisgarriagoa egitea.	a. Komun publikoak egokitu eta gehitu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideei jarraituz. b. Hiri-altzariak eta jolas-elementuak egokitu eta gehitu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideei jarraituz. c. Zabor-bilketa irisgarriagoa eta seguruagoa egin.
2. Garraioa	2.1. Garraio-azpiegitura irisgarriagoa egitea.	a. Aparkaleku egokituaren irisgarritasuna eta banaketa bidezkoa bermatu. b. Autobus-geralekuak egokitu.
3. Eraikin publikoak	3.1. Udal-eraikinak irisgarriagoak egitea.	a. Udaletxean igogailua jarri eta komunak egokitu. b. Udal-eraikinetako espazio nagusietan egokitzapen-lanak egin.
4. Espazio eta jarduera pribatuak	4.1. Espazio eta jarduera pribatuen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak diseinatzea eta gauzatzea.	a. Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak diseinatu eta gauzatu. b. Etxebizitza-eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko laguntzak diseinatu eta gauzatu.

4.1.2. Udal irisgarria

Orohar, jarduketa-eremu hau Udalaren jardunbideari dagokio. Aurreko Irisgarritasun Plan gehienek ia ukitzen ez zituzten esparruak hartzen ditu, bere lanketa IUPI honen idazketa-prozesuan erronka garrantzitsua izan delarik (ikus gorago “Jarduketa-eremuak” atala).

Ardatzak	Helburuak	Jarduketa-multzoak
5. Formakuntza eta kontzientziazioa	5.1. Udal-eragileen irisgarritasun unibertsalaren arloko ezagutza hobetzea eta irisgarritasunaren kulturen aurrera egitea.	a. Udal-eragileak irisgarritasun unibertsalaren inguruan formatu. b. Herritarrak irisgarritasun unibertsalaren inguruan sentsibilizatu.
6. Informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea	6.1. Komunikazioen ulergarritasuna hobetzea, herritarren informaziorako eskubidea bermatzeko.	a. Udal-informazioa eta komunikazioa irisgarriagoak egin.
	6.2. Hizkuntzen erabilera irisgarriagoa egitea.	a. Udalaren hizkuntza-irizpideak eta -ohiturak irisgarriagoak egin.
	6.3. Esparru digitalaren irisgarritasuna hobetzea.	a. Udal webgunean eta sare sozialetan irisgarritasun irizpideak txertatu.
	6.4. Udalaren gardentasuna areagotzea eta herritarren parte-hartzean irisgarritasuna txertatzea.	a. Gardentasuna areagotu eta herritarren parte-hartzean irisgarritasuna txertatu.
	6.5. Informaziorako eta seinalizatapenerako errotulazioaren irisgarritasuna hobetzea.	a. Udalerrirako seinalizatapen irisgarria, ulergarria eta homogeneoa diseinatu, eta eraikin publikoetako sarbideetan errotulazioa jarri.
7. Arreta eta izapideak	7.1. Arreta eta izapide irisgarriagoak eskaintzea.	a. Arreta irisgarriagoa eman herritarrei. b. Udal-izapideak irisgarriagoak egin.
8. Aisialdia, ongizatea eta garapena.	8.1. Udal-zerbitzu eta baliabide eskaintza irisgarriagoak eta inklusiboagoak bermatzea.	a. Zerbitzu eta Baliabideen eskaintzaren irisgarritasun- eta inklusio-mailaren diagnostikoa osatu eta hobekuntzarako irizpideak ezarri.
	8.2. Festak eta ekitaldiak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea.	a. Herriko festak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egin. b. Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuak irisgarriagoak egin. c. Larrialdi-planak eta ebakuaziorako protokoloak berrikusi, irisgarritasun irizpideak txertatuz.
9. Arau-esparrua.	9.1. Ordenantzetan irisgarritasun irizpideak txertatzea.	a. Ordenantzetan irisgarritasun irizpideak txertatu.

	9.2. Irisgarritasun ekonomikoa hobetzea.	a. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Ordenantza Fiskala berrikusi irisgarritasun irizpideak txertatuz.
10.IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa.	10.1. Plana gauzatzea errazteko baldintzak ezartzea.	a. IUPI kudeatu, jarraipena egin eta ebaluatu. b. Udal-kartografia eguneratu.
	10.2.Plana komunikatzea eta sozializatzea.	a. IUPI komunikatu eta sozializatu.

4.2. Lehenespen-irizpideak

Lehenespen-irizpideek ondorengo helburu hauek izan dituzte kontuan:

1. Pertsona askoren topaguneak elkartzen dituzten oinezko ibilbide nagusiak.
2. Ibilbideen arteko sareen arteko loturak errazten dituzten ibilbideak.
3. Orain arte egokitu ez diren ibilbideak.

Udaleko langile eta politikarien inplikazioa ezinbestekoa izan da jarduketa proposamenak ulertu eta prestatzeko orduan. Kontuan hartu dira honako irizpideak:

4. Aukera suertatzea.
5. Beste planekin bateratzeko aukera.

Interes mailak definitzeko erabili diren lehenespen-irizpideak ondorengoak izan dira:

- **Premia.** Herritar guztien segurtasuna bermatzea, are gehiago desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan.
- **Herri osoan zehar onurak sakabanatzea.** Planaren eragina herriaren eremu guztietara zabaltzea, herriguneko erdigunera, zonalde historikoetara edo auzo nagusienetara mugatu gabe.
- **Udalak edo beste erakunde batek aurreikusitako egitasmoak.** Lehenetsitako egitasmoa aurrera eramango denaren bermea izatea.
- **Herritarrek edo elkarteek eskatutako ekintzak.** Herritarrek parte-hartze prozesuan zehar adierazi dituztenak kontuan hartzea, eguneroko bizitzan eragingo dutelakoan.
- **Bideragarritasun teknikoa.** Proiektu bat idazteko, kudeatzeko edo gauzatzeko konplexutasun-maila kontuan izatea: batek asko atzera dezake jarduketa bat gauzatzea, eta beste batek berriz, ia berehala ezartzeko modukoa bihur dezake.
- **Bideragarritasun ekonomikoa.** Udalaren baliabide ekonomikoak eta finantzatzeko gaitasuna zein aukerak kontuan izatea.
- **Errentagarritasun soziala.** Ahalik eta jende gehienari eragin diezaieketen jarduketak lehenestea.
- **Albo-onura sozialak.** Herritarren bizitzako beste arlo batzuetan ere zeharka eragingo duten jarduketak lehenestea.

4.3. Jarduketen balorazio ekonomikoa

Jarduketa-Planeko esku-hartze bakoitzean aurreikusitako aurrekontu-estimazioa udalerriko Irisgarritasun Plana gauzatzeko eta baliabideak modu eraginkorrean esleitzeko tresna da. Beraz, ez da aurrekontu zehatz bat, baizik eta etorkizuneko inbertsio-beharrak kudeatzeko oinarritzko lan-metodologia baten emaitza. Balio ekonomiko hauek ezartzeko, besteak beste, Planaren lanketan parte hartu duten Udaleko teknikariek eman diguten esperientzia eta ezagutza hartu da kontuan, jarduketa-multzoaren aurrekontuen homogeneotasuna hein batean bermatu delarik.

Esaterako, “Udalerri irisgarria” jarduketa-eremu nagusiko kostuen estimazio horiek egiteko, funtsean lau aldagai nagusi hartu dira kontuan, eremuaren arabera: interbentzio-eremuaren azalera eta hedadura, eraldaketa-maila, zailtasun teknikoa eta egungo hiri-azpiegiturak zein neurritan mantendu, berrizatu edo ordezkatzeko diren.

Kontuan izan behar da zenbait esku-hartzetan eremuen hedadura alda daitezkeela, eta lehendik dauden urbanizazio-elementu edo -azpiegiturak aprobetxatzeko aukerak oso desberdinak izan daitezkeela jarduketa baten eta bestearen artean. Muturreko kasuetan, gerta daiteke irisgarritasuna hobetzeko

obra baten kostuaren zatirik handiena bistan ez dauden elementu eta azpiegiturretara bideratu beharra. Guzti honek, noski, azkeneko prezioan eragiten dio. Datorren orrialdean eta fitxetan erakusten diren aurrekontuak orientazio gisa erabili daitezke interbentzio bakoitzaren gutxi gora beherako kostua estimatzeko.

Prezioak BEZik gabe daude, eta kostu erreala proiektu bakoitza zehatzago definitzean kalkulatu ahal izango da. Gainera, neurri batzuri ez zaie aurrekonturik esleitu, haiek aurrera eramatea ez delako udalaren eskumena, edo etorkizuneko garapen posible batzuen hirigintza-kargen menpe daudelako. Badira, hala ere, aurrekontua duten zenbait neurri beste erakundeek partzialki edo osoki finantziatu ditzaketenak (errepideak hartzen dituzten jarduketak, esaterako).

4.4. Etapa-plana

Etapa-plana Udaleko arduradunekin batera adostu da. Bertan adierazi den hurrenkerak neurri batean jarduketaren lehentasun-maila adierazten du, baina ez da hori izan aldagai bakarra (ikus gorago “Lehenespen-irizpideak” atala). Adibidez, gerta daiteke jarduketa baten lehentasun-maila oso altua izatea irisgarritasunari dagokionez, baina irisgarritasunaren aldetik balio baxuko obra bat amaitu arte abian jartzeko modurik ez izatea. Alderantzizkoa ere gerta daiteke: irisgarritasunari dagokionez balio baxuko jarduketak aurreratzea egutegian, garrantzitsuagoak izan daitezkeenak horien amaituta egotea behar dutelako. Icus hurrengo puntua, “Baldintzatutako jarduketak”.

Guzti horretaz gain, urtez-urteko aurrekontuak orekatzeko irizpideari ere jarraitu zaio, jarduketa garrantzitsuak dituzten urteetan erabat lortu ezin bada ere. **Urtez-urteko etapa-plana IUPIaren bi ataletan jaso da:**

- Jarduketa-Planen hasierako laburpen-taulan. Icus “Jarduketa-Plana: Udalerrri irisgarria” eta “Jarduketa-Plana: Udalerrri irisgarria” eranskinak.
- Planaren kudeaketan laguntzeko prestatu den aginte-koadroan. Icus esteka “Aginte-koadroa” atalean.

4.4.1. Baldintzatutako jarduketak

Aurreko lerroetan adierazi bezala, jarduketa batzu baldintzatuta daude, arrazoiak desberdinak izan daitezkeelarik: Planaren idazketa-fasean ezin delako ziurtatu finantzaketa edo eta diru-laguntzak behar diren unean izango diren, abian jarri aurretik beste jarduketa bat gauzatu behar delako, beste eragile edo erakunde batzuk eskumenak edo ardurak dituztelako dagokion esparruaren gainean, Udalaz kanpoko eragile baten kudeaketari itxaron behar zaiolako... Horrelakoak aurreikusi diren kasuetan ohar bat jarri da Jarduketa-Planean, dagokion fitxan.

4.5. Jarduketa-fitxak

Gorago “IUPIaren edukiak eta antolaketa” atalean adierazi bezala, Jarduketa-fitxak bi eranskinetan jaso dira, dagokion jarduketa-eremu nagusiaren arabera:

- I. IUPI: Memoria.
- II. **Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerrri irisgarria.**
- III. **Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irisgarria.**
- IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
- V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.

“IUPIaren edukiak eta antolaketa” atalean adierazi da, baita ere, jarduketa zehatz baten fitxaren antolaketa:

- Jarduketari dagozkion ardatza eta helburua.
— Lehentasun-maila.
— Irismena.
— Egungo egoera.
— Azalpena.
— Kronograma.
— Udaleko arduradunak. Beste eragileak.
— Esleipenak eta kanpo-baliabideak.
— Ebaluazio eta jarraipen adierazleak.
— Jarduketarako irizpideak.

1.1.h Araba ibilbideko 34 bis eta 42 zenbakien aurreko espaloian egokitzapen-lanak egin.
Ardatza 1. Hiri-ingurunea
Helburua 1.1. Ibilbide, espaloio eta plataforma bakarrak irisgarriagoak eta seguruagoak egitea.
Lehentasuna — Altua.
Irismena — Araba ibilbideko 34 bis eta 42 zenbakien aurreko espaloia.
Egungo egoera Bidegurutze honetan oinezkoek galtzadaren gainean egin behar duten bidea luzea da: kurba-erradioak murriztak bide hori laburtuko luke, eta gainera ibilgailuen abiadura baretzen lagunduko luke. Iparralderantz (eskubitarra irudian) doan espaloia zabaltzeko ere baliatu beharko litzateke esku-hartzea.

Azalpena
Aurrekusi diren jarduketak:
— Bidegurutzea egokitzea (eskubitarra, irudian). Udalak epe labur-ertainera futbol zelaien arteko bidegurutzeraino datorren kalea eraldatzea aurreikusten duenez, esku-hartzea jarduketa horren barruan sartuko litzateke.
— Irudian adierazi diren bi espaloio-tarteak egokitzea. "espaloio goratuaren" irizpideari jarraituz, oinezkoek ez lukete ibirik jeitsi edo ligo beharko, lan hori kotxeentzako utziz. Bide batez, urbanizazio barruan oinezkoen ibilbide nagusienetan segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzeak egitea aztertuko da.
Kronograma
Jarduketa zehatzak
Kostua (€)
2026 — — —
2027 — — —
2028 — Jarduketa zehaztu. (4) 9 49.999
2029 — — —
2026-2029 — — —
2030-2033 — — —
Oharrak — (4) Aurrekonturik gabeko jarduketak: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da.
Udaleko arduradunak — Hirigintza. Beste sail inplikatuak:
Beste eragileak — — —

Jarduketa-fitxa bi irudi.

5. Kudeaketa-plana

5.1. Gobernantza

Plana kudeatzeko, gobernantza-eredu arin eta malgua ezarri nahi da. Eredu honek ahalbidetu behar du Udalaren baliabide pertsonal mugatuak erantzutea, eta, aldi berean, Planaren helburu estrategikoak eraginkortasunez lortzea. Planaren kudeaketa operatiboa eta zuzeneko ardura Udaleko teknikariek hartuko dute beren gain, Planaren ezarpena eta jarraipena Udalaren eguneroko jardueran modu praktikoa txertatuz.

Gobernantza herritarrekin partekatu nahi da, nahiz eta oraindik ez den zehaztu parte-hartze hori nola txertatuko den kudeaketan. Printzipioz, desgaitasunarekin lotutako beharrak, interesak, esperientzia edo ezagutza duten elkarleen eta herritarren parte-hartze eraginkorra litzateke egokiena. Aldiz, Udalaren baliabide pertsonalak mugatuak direnez, kudeaketa-mahaia edo -organo misto bat eratzearen inguruan zalantzak sortu dira udal-arduradunen artean. Hori dela eta, formula arinagoak bilatuko dira, hala nola, urteroko kontsultarako foroak edo proiektu espezifikoetarako lankidetzak-mahaia, irisgarritasunaren arloko elkarrikerak zibila bermatzeko.

Laburbilduz, gobernantza-eredua pixkanaka egokitzapenean eta erantzukidetasunean oinarrituko da nolabait, Planaren lehen urteetan oinarritzeko koordinazio-egitura batetik abiatuz, eta esperientziaren arabera, herritarren parte-hartze formalagoa pixkanaka txertatzeko aukerak sortuz.

Gobernantza- eta kudeaketa-eredua modu batekoa ala bestelakoa izan —eta Planean jarduketa bakoitzean Udaleko arduradun teknikoak zehaztu bada ere—, IUPIa osatzen duten bi jarduketa-eremu nagusietako bakoitzean arduradun nagusi bat identifikatu nahi izan da:



“Udalerri irisgarria” deitu dugun jarduketa-eremu nagusiak gutxi gorabehera lehengo Irisgarritasun Planek hartzen zutenarekin egiten du bat. Beraz, **bere kudeaketa Hirigintza eta Zerbitzuak Saileko arduradunaren gain mantentzea erabaki da.**



IUPIek ekarri duten berritasun handienetakoa da “Udal irisgarria” deitu dugun jarduketa-eremu nagusia. Ez dago garbi nola kudeatuko den, baina edozein kasutan adura hori **Hirigintza eta Zerbitzuak Saileko teknikari baten eskuetan EZ uztea gomendatzen da.**

Itxura batean, goiko irudiak IUPIaren izaera integrala hautsi lezake, baina hain zuzen, banaketa hori proposatu izanaren helburua da IUPIa Udaleko sail guztietara zabaltzea. Hasiera-hasieratik mahai gainean egon den elkarrizketa izan da, eta saihestu nahi den arriskua da IUPIaren gaineko ardura osoa Hirigintza eta Zerbitzuak Sailean geratzea. Gorago, “Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala” atalean, arrisku horren atzean dagoen oinarritzko bi elementu aipatu dira: batetik, aurreko hamarkadetako inertiaren eragina, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzan bertan IUPIak oraindik “Hirigintza” arloari lotuta egotea (ISEK bera Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako kontsulta-organoa da).

Gobernantza-eredu berri baten beharra aipatu izan da behin baino gehiagotan IUPIaren idazketan zehar, baina hori zehaztea samurra izango ez dela aurreikusita, “Jarduketa-Plana: Udal irisgarria” eranskineko “IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa” atalean, honako jarduketa zehatza ezarri da, “IUPIa kudeatu, jarraipena egin eta ebaluatu” fitxako lehen jarduketa gisa:

- **“Udal Irisgarria” jarduketa-eremu nagusiaren kudeaketa-eredua zehaztea.**

Bertan adierazi dira aukera desberdinen adibideak: arduradun bat identifikatuz, kudeaketa partekatua egiteko espazioak eta baliabideak zehaztuz... Gainera, irizpideetan adierazi da kudeaketa horretan beste eragileak txertatzeko aukera: desgaitasunaren inguruan beharrak/interesak/esperientzia/jakintza duten elkarte edo herritarren parte-hartzea iradoki da.

Edozein kasutan, Udalaren baliabide pertsonalen gaitasunetara egokitutako gobernantza-eredua ezarri beharko da, praktika zein tresna arinak eta malguak.

5.2. Jarraipena eta ebaluazioa

“Jarduketa-Plana: Udal irisgarria” eranskineko “IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa” atalean, “IUPIa kudeatu, jarraipena egin eta ebaluatu” fitxan **IUPIaren jarraipenerako eta ebaluaziorako jarduketak zehaztu dira**. Bertan adierazi denez, jarduketak dokumentuaren idazketa ezartzen du, edo eta idazketaren esleipena. Alegia, aurrekontu bat aurreikusi bada ere, ez da baztertu dokumentua Udaleko teknikariek beraien kabuz idaztea.

1.1.1. Aginte-koadroa

IUPIaren kudeaketan laguntzeko aginte-koadro bat prestatu da, kalkulu-orri batean gauzatu dena. Erraztasuna helburu, jarduketa-fitxen hurrenkera berean jaso dira lerroak. Fitxa askok jarduketa zehatz bat baino gehiago jasotzen dute: kasu horietan, jarduketak lerroz-lerro banakatu dira.

Zutabeen egiturak adierazten du IUPI honek proposatzen duen kudeaketa-eredua: kalkulu-orria editagarria izanik, arduradunek aldian-aldian aldatu ahal izango du taula, behar den lekuan zutabeak gehituz adibidez. IUPIarekin batera sortu den aginte-koadroaren zutabeen banaketa:

- Kodea.
- Ardatza / Eremua.
- Azpieremua.
- Helburua.
- Jarduketa zehatza.
- Jarduketa mota.
- Urtea.
- Sail arduraduna.
- Sail laguntzailea.
- Gauzatu da? Bai / Ez / Partzialki.
- Gauzatutako gastua.
- Gauzatze-data.
- Oharrak / Balorazioa.

IUPI honi dagokion aginte-koadroa jasotzen duen kalkulu-orriaren pantaila-irudia.
 Esteka: www.labur.eus/IUPI-Aretxabaleta-AK

Jarduketa bakoitzaren fitxan adierazi dira haren jarraipen eta ebaluaziorako adierazleak. Gorago aipaturiko “kudeaketa arin eta malguaren” irizpideari jarraituz, adierazle gutxi batzu zehaztu dira, jarduketen izaerara egokituak. Ezarri diren adierazle-mota nagusienak:

- **Bai/Ez gisakoak.** Adibidez, jarduketa egin den ala ez adierazteko ezarri direnak.
- **Kuantitatiboak.** Zenbaki bat eskatzen dutenak: ohikoena da jarduketa gauzatzeko egin den gastua adierazteko ezarri izana.
- **Kualitatiboak.** Gutxiagotan jaso dira planean, normalean asetasun-maila adierazteko ezarri dira.

5.3. Planaren berrikuspena

IUPIen idazketan laguntzeko Eusko Jaurlaritzak ezarri dituen jarraibideetan (esaterako, ISEKaren bitartez idatzitako gidan, bai eta diru-laguntzen deialdian bertan) azpimarratu izan da plan hauen indarraldia lau urtekoa izango dela. Hala, IUPI honen laurtekoa 2026-2029 tarteari dagokio. Ikus gorago “Irismena, denboran” atala.

“Jarduketa-Plana: Udal irisgarria” eranskineko “IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa” atalean, “IUPIa kudeatu, jarraipena egin eta ebaluatu” fitxan **IUPIaren berrikuspena ezartzen duen jarduketa zehatza jaso da, 2029. urtean**. Bertan adierazi denez, jarduketak dokumentuaren idazketa ezartzen du, edo eta idazketaren esleipena. Alegia, aurrekontu bat aurreikusi bada ere, ez da baztertu dokumentua Udaleko teknikariek beraien kabuz idaztea.

5.4. Komunikazioa eta gardentasuna

IUPIaren idazketa, ezarpena eta ebaluazioa herritarrekiko komunikazio eta gardentasun printzipioetan oinarritzen dira. Eusko Jaurlaritzak arlo honetan ezarritako jarraibideek, hain zuzen ere, funtsezko garrantzia eman diete bi alderdi horiei, bai Planaren idazketa-fasean, bai eta haren ezarpenean, jarraipenean eta ebaluazioan ere.

Gardentasun aktiboa bermatzea funtsezkoa izango da Plana bizia eta eraginkorragoa izan dadin, udalerriko eragile guztien konpromisoa eta inplikazioa sustatuz. Esaterako, planaren idazketa-prozesuan zehar herritarrei komunikatu zaie Udala Irisgarritasun Plana prestatzen ari zela, eta parte hartzeko gonbidapena egin zaie. Ikus “Parte-hartzearen memoria” eranskina.

Behin Irisgarritasun Plana amaituta eta onartuta, udal webgunean eskuragarri jartzea aurreikusten da, edonork dokumentua kontsultatzeko aukera izan dezaten. Horrek gardentasuna bermatzen du, eta, aldi berean, udalaren konpromisoa erakusten du irisgarritasunaren inguruko politikak publiko eta eskuragarri egiteko. Gainera, jarduketa nagusienak gauzatzen direnean, horien inguruko komunikazio aktiboa egitea aurreikusten da, herritarrei informazio zehatza eta eguneratua eskainiz. Horrela, herritarrek ez dute soilik planaren edukia ezagutuko, baizik eta haren garapena eta eragina ere modu argian jarraitu ahal izango dute.

Bestalde, urteko ebaluazioaren ondorioak ere publiko egingo dira. Ebaluazio horietan, urte horretan gauzatu diren jarduketak eta hurrengo aldian aurreikusitakoak azalduko dira. Horrek aukera emango du herritarrek udalaren jarduna modu kritiko eta eraikitzailean baloratzeko, eta, aldi berean, udalaren erantzukizuna eta gardentasuna indartzeko.

Laburbilduz, komunikazioa eta gardentasuna ez dira plan honen osagarri hutsak, baizik eta berezko oinarriak (ikus gorago “Printzipio operatiboak”). Izan ere, herritarrei informazioa modu argi eta eskuragarrian helaraztea, parte-hartzea sustatzea eta emaitzen berri ematea funtsezkoak dira irisgarritasunaren aldeko politika publikoak benetan eraginkorrak eta inklusiboak izan daitezen.



Irugarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

I. IUPI: Memoria.

- II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerrri irugarria.
- III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irugarria.
- IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
- V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.

